

EUSKAL - KANTAK



Euskaltzaindiaren ardurapean

BILBAO - 1960

EUSKAL - KANTAK



Euskaltzaindiaren ardurapean

BILBAO - 1960

Gráficas ELACURIA - Buenos Aires, 19

GERNIKAKO ARBOLA

Iparragirre

1

Gernikako arbola
da bedeinkatua
euskaldunen artean
guztiz maitatua
eman da zabal zazu
munduan frutua
adoratzen zaitugu
arbola santua.

2

Milla urte inguru da
esaten dutela
Jainkoak jarri zuela
Gernikako arbola
zaude bada zutikan
orain da denbora
eroritzen bazera
arras galdu gera.

3

Ez zera eroriko
arbola maitea
baldin portatzen bada
Bizkaiko Juntea
laurok artuko degu
zurekin partea
pakean bizi dedin
euskaldun jendea.

4

Betiko bizi dedin
Jaunari eskatzeko
jarri gaitezen danok
laister belauniko
eta biotzetikan
eskatu ezker
arbola biziko da
orain eta gero.

5

Arbola botatzea
dutena pentsatu
Euskalerrri guzian
danak badakigu
ea bada jendea
denbora orain degu
erori gabetanik
iruki biagu.

6

Beti egongo zera
uda berrikua
lore aintziñetako
mantxa gabekua
erruki zaitetz bada
biotz gurekua
denbora galdu gabe
emanik frutua.

Depósito Legal: BI - 995 - Año 1960

Arbolak erantzun du
kontuz bizitzeko
eta biotzetikan
Jaunari eskatzeko
gerrarik nai ez degu
pakea betiko
gure lege zuzenak
emen maitatzeko.

Erregutu diogun
Jaungoiko Jaunari
pakea emateko
orain eta beti
baita indarra ere
zedorren lurrari
eta bendizioa
Euskalerruari.

NERE SENARRAREKIN

Xenpelar

1

Nere senarrarekin
daukadan bizitza
kantatuko det iñork
ikasi albalitza
piña izango zala
eman ziran itza
akerraren adarrak
bezela gabiltza.

3

Baldin bazenekite
lengo egun batez
nola ikusi dedan
gizona suertez
neskatxak kortejatzen
dabill borondatez
andriari jipoya
diruaren partez.

2

Nere senarrak daukaz—
ki ijeniyuak
eztu gustorik gure
matrimoniyuak
mani gaiztuak dauzka
burura iyuak
eman biarko zaizka
Ebanjeliyuak.

4

Ni engañatu arte
txintxo eta umill
mingañ ederrarekin
berrogei maratill
orain lana egin baño
nayago luke ill
bere ta besterenak
zurrupatzten dabill.

Goizian tabernara
juan da alperrian
begi bat txintxilikan
erdi negarrien
ziraldoka etxera
illunabarrian
gaiztotutzen asi da
ondu biarrarian.

Tabernatik etxera
orren pausajia
irrintzi egiteko
badu korajia
errespetua biar
zuen parajia
amaren sabelian
aztuta lajia.

Moskortuagatikan
zalla da erortzen
bakarrikan badaki
etxera etortzen
andria egon biar
bizkarra berotzen
senarraren eskutik
azotiak artzen.

Umiak karraxiyan
neroni antsika
senarra moskortzian
etxian musika
erantzuten badiyot
kontrako itzikan
nere bizkarrak eztu
izaten otzikan.

Beste lau lagunekin
hart aguazilla
jokuan galdutako
txerriyaren billa
ate bazterretatik
oyen eskamilla
andria etxian bada
atera dedilla.

Arriturik begirik
ez niyoten jaso
odolak ur biyurtu
zitzaizkidan oso
nere txerri gaxua
ostatura preso
senarraren jokua
izan dala kaso.

Ixillik pasa nuen
nere barrenian
au ere egin biar
zuen azkenian
beste jaberik badu
bire zuzenian
jaunak eramazute
nai dezutenian.

Esku Aldaba zuen
txerriyak izena
bost arrua ta erdi
bastante gizona
ura jokuan galdutako
gañera kinzena
orra nere senarra
sujeto zuzena.

ORAIN BI MILLA URTE INGURU

Txirrita

1

Orain bi milla urte inguru
bezela ziran asiyak
erromatarrak berendu nairik
gure zazpi probintziyak
garai artako abarkadunak
ziran jeniyo z biziya
baziran penaz amildu eta
beren ezurak ausiyak
lastimosuak izango ziran
ayen orduko antsiyak.

2

Denbora artako gerrero zarrak
ziran gizon seriyuak
aziyuetan irabazita
jazten zituzten graduak
irurogeita lau urtekuak
bazabiltzan soldaduak
orain bezela etzuen inor
engañatuzten diruak
Lekobide ta Osabal ziran
Kantabriako buruak.

3

Aitona oyek zer pentsatu zuten
azkeneko eriyotzian
ez genduela jakin izandu
pena daukat biyotzian
arrats guzian otsak guardi-
egunaz erdi gosian [yan
zenbait naigabe sufritu zuten
Erniyoko gurutzian
ayen orduko oraziyuak
ederrak izango ziran.

4

Gure izeben amen amonen
osaben aiten aitonak
Beren erriak defendituzten
ibillitako gizonak
bertan batalla irabazita
gero Erromara juanak
Otabianok galdu zituen
Berebiziko gizonak
aundi gaiztuak diran tokiyan
pagatzen du txiki onak.

5

Arrosa baño zabalogoko
gure zazpi probintziyak
baratza eder bat bezela zeu-
guziyak lorez jantziyak [den
lau Españiak dauzkagunak
iru an ditu Frantziyak
gizon gaizto bat dala mediyo-
ondatu giñan guziyak
beste munduan ikusten badet.
eman biazkat graziyak.

6

Persegituak izandu gera
juan dan zenbait urtian
asko zabiltzan agindu nairik
Kantabriako partian
mantxa gabeko lore ederrak
estalirikan lur pian
errespetua gordetzen zuten
Lartaun emen zan artian
oraindik ere denbora dago
berriro saya gaitian.

7

Geren sallari segi zayogun
ez besterena mugitu
motiborikan asko badauzkat
ongi esan nai banitu
ni engañatzen ez baldin ba-
Euskal-erriyak baditu [naiz
Kantabriaren izenik ere
nai ez dutenak aditu
zazpi senide aita batenak
ezin gerade unitu.

8

Zazpi senide aita batenak
danak euskaldun garbiyak
Tubal zarraren artaldetikan
banatutako ardiyak
beren aitona nungua zuten
ez dakitenak erdiyak
utzi ditzagun bide illunak
billa ditzagun argiyak
beti betiko bere izena
izan dezan Kantabriyak.

9

beren izea beste gauzarik
ez daukatena buruan
gaurko egunian alako asko
ikusten dira munduan
esaten dute Kantabria onek
bere jabia nor duan
kontra egiten asten zaizkigu
setosuaren moduan
geren anayak ez ditugula
esan gertzake orduan.

10

Baldin egiyaz egiña bada
aurreko zarren papera
zazpi probintzi euskerazkuak
Kantabrietarrak gera
nere biyotzak daukan asmua
beti dijua pakera
bide askotatik martxa zuze-
ezin gertzake atera [nik
onena zein dan ongi neurtuta
bildu gaitezen batera.

11

Mundu onetan ezin bizi ta
ez degu juan nai bestera
gezurra esanda ez dago andik
etorritzerik ostera
lege kontrako jazkera
gañera berriz kontari daude
galduko dala euskera
gogor egiten ezpazayote
oyentzat aña ez gera.

12

Kolka txarraren azpiyan dau-
txito urrikalgarriyak [den
amarretatik bost iltzen dira
beste bostak elbarriyak
pisti gaiztuen bildurrez beti
gora begira jarriyak
indar gutxiko gorputzak eta
suspiriyuak larriyak
modu orretan bizi ziraden
gure orduko erriyak.

IZAZU NITZAZ KUPIRA

Bilintx

1

Loriak udan intza bezela
maite det dama gazte bat
ari ainbeste nai diyotanik
ez da munduan beste bat
Iñoiz edo bein pasatzen
ikusi gabe aste bat [badet
biyotz guztira banatutzen zait
alako gauza triste bat.

2

Neskatxa gazte paregabia
apirilleko arrosa
izarra beziñ dizdizariya
txoriya beziñ airosa
Oraintxen baño gusto geiago
nik ezin nezake goza
zorionian ikusten zaitut
nere biotzak au poza!

3

Ez aldirazu antzik ematen
nik zaitudala nayago
ai! mariñelak gau illunian
izarra baño geiago.
Nere onduan zauzkatalako
pozez zoraturik nago
zu ikustiak alegratu nau
triste neguen lenago.

4

Nik ainbat inork nai dizu-
arren ez zazula uste [nikan
nere begiyak beren aurrian
beti desio zaituzte
eguzkirikan ikusi gabe
txoriya egoten da triste
ni ez nau ezerk alegratutzen
zu ikustiak ainbeste.

5

Arpegi fiña, gorputza berriz
ez dago zer esanikan
izketan ere grazi ederra
ezer ez dezu txarrikan
mundu guztiya miratuzera
zu bezelako damikan
agiyan izan liteke, baño
ez det sinisten danikan.

6

Nere betiko pentsamentua
nere konsolagarriya
zu gabetanik ezin bizi naiz
esaten dizut egiya
Zu baziñake arbola eta
ni baldin banitz txoriya
nik zu ziñaken arbol artan-
gingo nuke kabiya. [txen

7

Amoriyuak nere biyotza
zureganuntza darama
erri guziyan zeren daukazu
neskatx bikañaren fama
beste fortunik mundu onetan
ez det desiatzen, dama
aur batek berak izan gaitzala
ni aita eta zu ama.

8

Falta duenak logratuzeko
itz egitia txit on du
eta nik ere sayatu biat
ote gintezke konpondu
gaur nagon beziñ atrebitua
sekulan ez naiz egondu
argatik golpez galdetzen di-
[zut:
Nerekin naizun ezkondu.

9

Ezkondutziak izan bear du
preziso gauza txarren bat
ala esaten ari zait beti
nere konsejatzalle bat
Alaxen ere aren esanak
oso utzirik alde bat
ongi pozikan artuko nuke
zu bezelako andre bat.

10

Zedorrek ere ongi dakizu
aspaldi ontan nagola
zuregatikan penak sufritzen
bañan ordia au nola
Alaxen ere nigana eziñ
bigundu zaitut inñola
ni zuretzako argizaya naiz
zu neretzako marmola.

11

Nere biotza urtzen dijua
eta ez da misteriyo
penaren kargak estutu eta
zumua kendutzen diyo
Begiyak dauzkat gau eta
egiñikan bi erriyo [egun
beti negarra dariyotela
zu zeradela meriyo.

12

Zu zeralako meriyo baldin
juaten banaiz lur azpira
gero damua eta malkuak
alperrik izango dira
Bein jua ezkerero oyen bir-
berriz ez niteke jira [tutez
ori gertatu baño lenago
izazu nitzaz kupira!

KONTXESIRENTZAT

Bilintx

1

Kantatutzero indar aundiko
desio batek narama
Kontxesi zuri nai dizut eman
merezia dezun fama
gure probintzi Gipuzkoakuan
igualik gabeko dama
berinkatua izan derilla
zu eman zinduen ama.

2

Zedorrek uste etzenuela
egon nitzaizun begira
lendabiziko oñetara, ta
urrena berriz gerrira
oñak dituzu txiki politikak
gustagarriyak txit dira
gerriyak berriz eman litzazke
kana bat zintak bi jira.

3

Andik urrena ipiñi nizun
erreparua petxura
orduantxen bai eman nizula
aingeru baten itxura
Jainkoak berak deitu izan
iyo nerilla zerura [balit
zure ondotik juan biarrak
emango ziran tristura.

4

Ondoren jarri nitzan den-
begiratuaz lepora [boran
biyotzak salto egiten ziran
irten ta zuzen badakit zierto
irten ta zuzen badatik zierto
juango zan zure kolkora
nik jakitera nai zenuela
utziko nion gustora.

5

Atenziyua begiyetara
paratu nizun segiran
ez dakit zierto begiyak edo
eguzki berri bi ziran
ondo ikusi ez nizkifzun ta
nola esango det zer diran?
begiratutzen nizun guziyan
bista kendutzen zeniran.

6

Ille beltz eder dizdizariya
oparo dezu buruan
konparatzeko baliyo duen
sedarik ez da munduan
trentzak egiñik zenezkan da-
erregiñ baten moduan [na
diamantezko koroï eder bat
falta zitzaizun orduan.

7

Ointxo politik, gerriya mia
graziya milla petxuan
lepo biribill diruriyena
egin berriya tornuan
pare gabeko begi argiyak
ille ederra buruan
zu baño aingeru politagorik
ez da izango zeruan.

8

Beti ariko naiz Jaunari es-
ondo izan zaitezela [kaka
etzazula uste nere biziyan
zutzaz aztuko naizela
eskumuñak maiz bigal naz-
orain artian bezela [kitzu
ainbeste egin biar dirazu
penaz ilko naiz bestela.

UME EDER BAT

Iparragirre

1

Ume eder bat ikusi nuen
Donostiyako kalean
itz erditxo bat ari esan gabe
nola pasatu parean
gorputza zuen liraña eta
oñak zebiltzan aldean
politagorik ez det ikusi
nere begiyen aurrean.

2

Aingeru zuri pare gabea
Euskal Erriko alaba
usterik gabe zugana beti
nere biotzak narama
ikusi nayan beti or nabil
nere maitea, au lana!
zoraturikan emen naukazu
beti pentsatzen zugana.

3

Galai gazteak galdetzen dute
aingeru ori nun dago
nere maitea nola deitzen dan
ez du iñortxok jakingo
ez berak ere, ez luke naiko
konfiantza orretan nago
amoriadun biotz oberik
Euskal-Errian ez dago.

EZKONGAYETAN

Iparragirre

1

Ezkongayetan zerbait banin-
ezkondu eta ezer ez [tzan
eder zalia banintzan ere
aspertu nintzan ederrez
nere gustua egin nuen da
orain bizi naiz dolorez.

2

Nere andrea andre ederra zan
ezkondu nintzan orduan
mudatuko zan esperantzarik
ere batere ez nuan
surik batere baldin badago
maiz dago aren onduan.

3

Zokoak zikin tximak jario
aurra zintzilik besoan
adabakia desegokia
gona zarraren zuloan
iru txikiko botilla andia
dauka berekin alboan.

4

Nere andrea alperra dago
ez da munduan bakarrik
gauza gozoen zalea da ta
ez du egin nai bearrik
sekula ere ondo izango ez da
alakoaren senarrik.

5

Larunbatetik larunbatera
garbitzen ditu zatar bi
bere aretxek berotutzeko
egur erretan zama bi
belaun bietan bana artuta
ez da ixiltzen kantari.

6

Nere andrea goiz jaikitzen da
festara bear danean
buruko miña egiten zayo
asi baño len lanean
zurekin zer gertatuko zan
nik bildurrikan ez nuan.

AGUR NERE BIOTZEKO

Iparragirre

1

Gazte gaztetandikan
erritik kanpora
estranjeri aldean
pasa det denbora
erri alde guzietan
toki onak badira
bañan biotzak dio
zuaz Euskal Errira.

2

Lur maitea uztea
da negargarria
emen gelditzen dira
ama ta erria
urez noa ikustera
bai mundu berria
oraintxe bai, naizela
urrikalgarria.

3

Agur nere biotzeko
amatxo maitea
laister etorriko naiz
konsola zaitea
Jainkuak berak nai du
ni urez juatea
ama zertarako da
negar egitea?

PELLO JOXEPE

1

Pello Joxepe tabernan dala
aurra jayo da Larraunen
etxera jua da esan omen du
Ez da neria izanen
beraren amak topa dezala
aur orrek aita zein duben.

2

Au pena eta pesadumbria!
senarrak aurra ukatu
Pello Joxepe, biyotz neria
aur orrek aita zu zaitu
aur orrentzako beste jaberik
ezin nezake topatu.

Zure semia besuan daukat
senarra aldamenian
orain denborik ezdaukat eta
zuazkik ordu onian
neronek abisatuko dizut
garaya datorrenian.

4

Fortunosua banitzan ere
ni naiz fortuna gabia
abade batek eraman dizkit
aurtxo bi eta andria
aurrak beriak baziran ere
Manubelatxo neria!

5

Joango nitzake zugana bañan
urruti gaude maitia
zakurra zaunkaz asitzen bada
nola egingo det bakia?
Arekikua egingo det nik
ta arren etorri zaitia.

9

Nere etxian bi ollo dira
ta bata daukat kiyua
ollarra berriz kukurrukuka
kantoyan bera dijua
jaunak orra despeditu ta
asko da dibertsiyua.

Joxe Agustin, nere biyotza
arren aditu nazazu
beti orrela egoten ere
neke aundiya daukazu
askoz obeto izango zera
ta ezkondu egin biazu.

7

Pello Joxepe, nere biyotza
zor dizut milla graziya
ezkondutzeko desio nuke
gazte dontzella garbiya
ez mundu ontan zenbait be-
len bestekin ibiliya. [zela

8

Pazientzia artu biar da
mundu onetan Joxepe
andria ere zuria zan da
aurra bestena diyote
gizonen faltan igarotzen da
basuan zenbait larrarte.

ZALDI BATEN BIZITZA

Bilintx

1

Orra sei bertso kale-
garbitzalleari
zeña bere izenez
dan Joxe Mari
erreza lezazkike
iru Ave Mari
indarra etortzeko
zaldi zuriari
animali ori
erruki zait neri
falta du ugari
egoteko guri
kartoyakin egiña
dala diruri.

2

Goizero bear diyo
eraso lanari
zikiñak bildu arte
erri danari
berriz ere obeto
bizi ez danari
nabarmenduko zaizka
ezurrak ugari
ez naiz txantxaz ari
eta Joxe Mari
zaldi gaxoari
nai aña janari
eman zayozu, ea
jartzen dan lodi.

3

Dago eskeletuen
itxura arturik
diña jan ezak dauka
orla galdurik!
nola ez da egongo
oso argaldurik
irukitzen badute
askotan baraurik?
zaldi orreri nik
ez det esperorik
ezer ikusterik
ezurak besterik
ez du beintzat izango
odol golperik.

4

Lana sobra du bañan
janaria falta
urrikalgarria da
dakarren planta
gaixoak ez lezake
luzaro aguanta
flakiarekin ezin
mugitu du anka
pentsu gutxi jan ta
kalean jiraka
gaizki bizi da ta
indarrik ez daka
ezin karriatu du
karro bat kaka.

Munduan ez liteke
zaldirik arkitu
duenik orrek aña
pena sufritu
biotzik gogorrera
lezake kupitu
ez du zartzera txarra
gaixoak atxitu
pausua nagitu
ezin du mugitu
zaldi orrek ditu
zazpi espiritu
bestela bizirikan
ezin gelditu.

Indarra zeukan arte
zikiña karrayo
eragiten zioten
makiña bat sayo
bañan miñez jarri da!
indarra joan zayo!
nekearen pagua
balaz eman zayo!

SENARRAK EMAZTIARI

Andre zalea naiz nerez
eta protxua nai berez
bikaña daukat itxurez
oyek gogoan dauzkeala
nabil egunez ta gauez
ona bai abillidarez
sasoikua da edadez
atso zartutakoa ez.

Gizagaxoaz danak
pena ar zazute
baldin biotz biguñak
badituzute
asi zan egunetik
eta orain arte
serbitzua egin du
errian bastante
igande ta aste
jayarekin naste
makiña bat urte
pasa dizkizute
orain erretirua
merezi luke.

Azkenak emen daude
zaldi argal baten
zeñak ez zuen iñoiz
pentsu on bat jaten
gelditu zaizkan mami
puskak eramaten
beliak lan askorik
apenas daukaten!

Matrimonio autsia
bakarrik nauka utzia
bizi biarko etsia
gizona morroi zarpa zarrakin
andria galan jantzia
ai! au zer diferentzia
nork artu pazientzia
nik daukat penitentzia.

Andrea dabil tratuan
emanean da artuan
legorrian da portuan
bere bototik salduko luke
senarra iru kuartuan
isla batera barkuan
entregatzeko kontuan
ez da prezio altuan.

Ari zan Mari Aldarte
parrandan gastatu arte
bizio txarrakin parte
etxea saldu, diruak urtu
orain guztiontzat kalte
andrea daukat alkate
arrespetoa aparte
engañatuta naukate.

Badauka kortejantea
alperra ta tunantea
pikaro balientea
gabetan iñork sentitu gabe
iriketzeio atea
berak nai duen artea
atsegin da egotea
orlako borondatea.

Ni nago morroi serbitzen
besteren kargak berdintzen
gorputza asko nekatzen
maitea orla ibillitza
ez du legeak agintzen
asiagatik urdintzen
gazteak dio segitzen
nork daki nola dabilten.

Lenago gabe egondu
akordatu naiz berandu
ezin gerade konpondu
mundu onetan suerte onik
ez da neretzat izandu
mutill zartuta ezkondu
oraiñ andrea gallendu
gaztea bear omen du.

MUTIL KOXKOR BAT

Pello Mari Otaño

1

Mutil koxkor bat itxu aurreko
zuela aldamenian
gizon buru soil bizar zuri bat
bi makuluren gañian
kale ertzian ikusi nuen
iñora ezin joanian
ta bera nor zan jakin naiean
inguratu nintzarian
limosnatxo bat eskatu zidan
Jainkuaren izenian.

2

Zerbait emanaz galdetu niyon
al zan modu onenian
jayotzetikan al zeukan ala
gaitzak artua mendian
erantzun zidan: ez, semia, ez
nik indarra nuenian
ez nuen uste iritxitzerik
onetara azkenian
gaur limosna bat eskatutzen
Jainkuaren izenian. [det

3

Eta jarraitu zuen esanaz
lengo gerrate denian
ni aurre xamar ibiltzen nin-
beti edo geienian [tzan
nekatu gabe aisa igoaz
aldapik luzienian
etzan burura asko etortzen
gu ala gebiltzarian
gero limosna eskatutzerik
Jainkuaren izenian.

4

Odola bero eta burua
arrua dagoenian
edozein eran sartutzen da bat
alako itxumenian
atsekabe ta negar samiñak
badatoz ondorenian
nolaerebait batek biziya
utzitzen ez duenian
limosnatxo bat eskatu biar
Jainkuaren izenian.

5

Iñoiz pensatzen nere artian
ni jarritzen naizenian
gaur ere asko dirala joango
lirakenak zuzenian
ez luke iñork siñistatuko
zer pena ematen dian
ai, orla nintzan ni ere sendo
ta gazte nenguenian
gaur limosna bat eskatutzen
Jainkuaren izenian. [det

6

Ai, txorakeri asko egiten
da zentzurik ez darian
siñista zazu ur au pasia
daukanaren esanian
obiago da gazte dan arte
alegintzia lanian
negar egiñaz ibili gabe
gero garaya joanian
limosnatxo bat bildu eziñik
Jainkuaren izenian.

IRU DAMATXO

1

Donostiyako iru damatxo
Errenteriyen dendari
josten ere badakite baña
ardoa eraten obeki
eta krixkitin kraxkitin
arrosa krabelin
ardoa eraten obeki.

2

Donostiyako Gaztelupeko
sagardoaren gozua
antxen eraten ari nintzala
autsi zitzaidan basua
eta krixkitin kraxkitin
arrosa krabelin
basoa kristalezkoa.

3

Donostiyako iru damatxo
irurak gona gorriyak
sartzen dirade tabernan eta
irtetzen dira ordiyak
eta krixkitin kraxkitin
arrosa krabelin
irtetzen dira ordiyak.

4

Donostiyako neskatxatxuak
kalera nai dutenian
ama piperrik ez dago eta
banua salto batian
eta krixkitin kraxkitin
arrosa krabelin
banua salto batian.

5

Donostiyako iru damatxok
egin omen dute apostu
zeñek ardo geyago eran ta
zein gutxiago mozkortu
eta krixkitin kraxkitin
arrosa krabelin
zein gutxiago morkortu

6

Arrosatxoak bost ostu ditu
krabelintxuak amabi
Mari Josepa nai duen orrek
eska biotza amari
eta krixkitin kraxkitin
arrosa krabelin
eska biotza amari.

MARKESAREN ALABA

Iturrino

1

Zeruak eta lurrak
egin zituana
memoriya argitzera
atoz neregana
esperantza badaukat
zedorrek emana
kunplituko dedala
desio dedana.

2

Amoriyozko penak
Bertso berrietan
publika al banitza
Euskal-errietan
enteratu naiz ongi
enkargu oyetan
San Jose arratsaldeko
iruterdietan.

3

Markes baten alaba
interesatua
mariñeruarekin
enamoratua
deskubritu gaberik
bere sekretua
amoriyua zeukan
barrena sartua.

4

Egun siñalia zan
goguan artzeko
esan ziola aren
etxera joateko
—deseo dedan itz au
manifestatzeko
zurekin Antonio
nago izateko.

5

Zer esaten didazu
Juanita itz ori
tentatzen ai zerala
trazak badirudi
etzait zure gradurik
tokatutzen neri
ez burlarikan egiñ
mariñeruari.

6

Iduki dezakezu
ongi sinistua
aspaldiyan neguala
zutzaz gustatua
etzaitut nik utziko
desanparatua
ala egiten dizut
gaur juramentua.

7

Konformatu ziraden
alkarren artian
ezkonduko zirala
urrengo urtian
eskola ikasteko
biyen bitartian
beraren erritikan
gutziz apartian.

8

Ala disponiturik
jarri ziran biyak
kartaz entenditzeko
alkarren berriyak
formalidadiakin
jartzeko egiyak
baña etziran lo egon
amaren begiyak.

9

Alferrik izango'ira
asarre guztiak
ez naute mudatuko
eternidadian
esposatu nai nuke
kariño onian
Antonio Maria
etortzen danian.

10

Eziñ egon zan ama
itz ori sufritzen
beriala asi zan
kartak detenitzen
intenziyo aundiagaz
ezkontza galdutzen
Juanitak alakorik
etzuan pentsatzen.

11

Amaren maleziya
korreora joan da
Antonio il zala
egiñ zuan karta
Juanitaren tristura
maitia esan ta
engañatu du bestek
gezur bat esanda.

12

Amak esaten dio:
Juanita neria
galdu da diotenez
Antonio Maria
nik billatuko dizut
beste bat obia
mayorazgo interes
askoren jabia.

13

Ama ez neri esan
orrelakorikan
ez det nik bestegana
amoriyorikan
eziñ alegre leike
nere barrenikan
kontzientzia ona
egonagatikan.

14

Utzi alde batera
orrelako lanak
ez ditut nik ikusten
zu bezela damak.
nai badituzu artu
onrak eta famak
giyatuko zaituzte
aitak eta amak.

15

Denbora kunpliturik
galaya abiyan
zer pasatu ote zan
aren memoriyan
kartarik artu gabe
juan dan aspaldiyan
inozente sartu zan
jayo zan erriyan.

16

Au da lendabiziko
esan zenduena:
¿zer da musikarekin
onratzen dutena?
Markesaren alaba
kalian barrena
esposario zala
ark biar zuena.

17

Desmayaturik egiñ
zuen ordu bete
gero nobia eske
itz bi egiñ arte
inguratu zitzaion
makiña bat jente
bigarren ordurako
ilda derrepente.

18

Gaba pasatu eta
urrengo goizian
entierrua zuen
bigarren klasian
markesaren alaba
guzien atzian.
¿Ze pena izango zan
aren biotzian!

Penarekin lerturik
Antonio il zan
akonpañatu zuen
Juanitak eleizan
naitasuna baziyon
esan dedan gisan
geroztikan etzuan
osasanik izan.

21

Alkarren konpañian
guk ere nai degu
Birjiña egiezu
Jaunari erregu
kristau guziokatik
baldin al bazendu
Iturrinok orrela
desiatutzen du.

MUTIL ZARRAREN DESPEIDA

1

Dozena nat bertso berri
gaztien konsolagarri
nere mingaña sano dan arte
nai nituzke jarri
begiratuaz alkarri
andrerik eziñ ekarri
mutil zarraren despeida zer
[dan
esango det sarri.

Erremedio bazei
sentimentu ori
bitarteko bat jarri
Jesus maiteari
orazio egiñaz
Birjiña Amari
zeruan gerta dediñ
Antonio Mari.

21

Alkarren konpañian
guk ere nai degu
Birjiña egiezu
Jaunari erregu
kristau guziokatik
baldin al bazendu
Iturrinok orrela
desiatutzen du.

MUTIL ZARRAREN DESPEIDA

1

Dozena nat bertso berri
gaztien konsolagarri
nere mingaña sano dan arte
nai nituzke jarri
begiratuaz alkarri
andrerik eziñ ekarri
mutil zarraren despeida zer
[dan
esango det sarri.

2

Egon zaitzte aditzen
zartuta nola gabiltzen
gazte dan arte ezkondu gabe
errez da gelditzen
ajiak zaizkit berritzen
eta indarrak urreitzen
orain jarri naiz soldata gabe
anaya serbitzen.

Anayak nauka mendian
koñatak aldamenian
gazte denboraz akordatzen
[naiz

sasoya joanian
ez det gularik janian
gau eta egun lanian
ondo egin da esker gaiztua
gero azkenian.

4

Iñork nai badu ikusi
nere bertsuak ikasi
nekia franko esker gaiztua
alimentu gutxi
anaya daukat nagusi
indarrak juanak igesi
ontaz aurrera oyen mendian
bearko det bizi.

5

Ezurrak zaizkit gogortu
belarriyak oso gortu
modu orretan mutil zarraren
inbiriya nork du
Andrerik ez nuen artu
oraiñ anparo biartu
praile naitare ezin niteke
komentuban sartu.

6

Koñatak nauka arrotza
Ua emendik aruntza
lana eginda esker gaiztua
alimentu otza
soldata gabe morrontza
begiratua zorrotza
animosua ez dago mutil
zarraren biotza.

Lenago erromerian
dama gaztien erdiyan
jira ta buelta ibiltzen nin-
[tzan

fanfarroikerian
orain tristura begiyan
nago estada larriyan
pipa bat artu ortzian eta
suaren guardiyan.

8

Orain galdu naiz ederki
merezi bañan obeki
neskatxak ere ezdirate nai
aterik iriki
badute milla aitzaki
gaztiaguak eduki
istimaziyo txarra nola dan
mutil zarrak daki.

9

Mutilla bere zarrian
neskatxakin indarrian
egun guztiyan oyen pardelak
nere bizkarrian
gero illunabarrian
istimaziyo txarrian
ibiltzen naute soñeko galtzak
kendu biarrian.

10

Mutil zarraren pobreza
iñork ikusi nai eza
eskarmentua duenik bada
konsidera beza
auxen da nere bajeza
nork izango ez du pereza
illobentzako utzi biarra
bere interesa.

Nik daukadan garantziya
badago zeñi utziya
bi alkandora galtza pare bat
anayak autsiya
au da esperientziya
munduko diferentziya
mutil zarrari tokatzen zayo
orlako jantziya.

Orra illoba gaztiak
mutil zarraren trastiak
irabazirik ez du izango
oyekin sastriak
zimurtu zaizkit estiak
Begiya daukat tristiak
eskarmentua izan zazute
nerekin bestiak.

ARDUAREN AZAÑAK

1

Ogei bertso berriak
orra Tolosatik
illia urdinduta
fabrika zarretik
inprentan ere ongi
moldez paraturik
mozkorrak gelditzeko
eskarmentaturik.

2

Arduaren bentajak
noa esatera
milagro aundiagorik
munduan ote da
asi baño lenago
ifior edatera
zenbat konbeni zayon
kontuak atera.

3

Ezta filosoforik
ez Teologorik
arduari neurriya
artuko dionik
gizon aundiyak ere
ikusi ditut nik
bere mozkorra ezin
disimulaturik.

4

Gizonak galdetzen du
non da ardo ona?
arduak erantzuten
emen nago jauna
zu nai zinduket artu
nerekin laguna
beldur gabe pasatzeko
gaba ta eguna.

5

Preso para ninduten
kupela batian
geroztik emen nago
sei illabetian
nik lagunduko zaitut
amoriyo onian
begira izan eztedin
zuzetzat kaltian.

6

Peleatzera nator
ardoa zurekin
zenbat fuerza dituzun
bear nuke jakin
betor matsaren kasta
bere adarrakin
ez naiz ikaratuko
aren indarrakin.

7

Ardoak esaten du
begirauk tontua
ez badek ateratzen
obeki kontua
laster jarriko zaizu
mingaña tontua
burua makurturik
Oso zorotua.

8

Arduak ematen du
berak aditzera
aski edan dezute
zuazte etxera
zertara etorri zera
guri agintzera
oraindikan nerekin
nagusi etzera.

9

Gizonak obe luke
ez jayo mundura
arduak galdutzeko
bere ezagura
noiz nai amilduta
erreka edo ura
igual sartuko da
sukaldeko sura.

10

Batian arrastaka
bestian erori
nolabait etxera da
gizon eder ori
gero maldeziyoka
andre gaxoari
txapela kendutzeko
taberneruari.

11

Gizona etzin zaitez
pakian oyera
eguna argitziatz
konponduko gera
txapela prenda utzita
etorri al zera
kreditu ederren bat
badegu zartzera

12

Arduak etzuela
zenion indarrik
txapela batengatik
ez egin negarrik
ez det ikusi nai nik
orrela senarrik
ez du buru galduak
txapela bearrik.

13

Esaten dizut bada
beti alferrikan
ezaitala gustatzen
gizon mozkorrikan
beti txapelik gabe
zu tabernatikan
ondatuko zenduke
Leon-go fabrica.

14

Alako gizon txarra
mozkortzen danian
lengo pentsamentuak
ditu mingañian
ez perdonarik egin
gaurko egunian
ardua geldi dedin
kreditu onian.

15

Aski da ikustia
andre bat ordiya
edanago naiya
beti egarriya
nonbait legorra dago
aren eztarriya
ori da bizio bat
etxe galgarriya.

16

Alako familiyan
bada sobra neke
neregandikan beintzat
urruti nai nuke
Burdeos-go kaya ere
berca baluke
iru urte baño len
tragatuko luke.

17

Edari gustozkoa
matsaren zumua
orrek enredatzen du
galanki mundua
gutxi izana dute
batzuek damua
naiz egin dezatela
non nai alderua.

18

Andria ezin altxa
senarra ari da
parrez itotzen dago
jendia begira
altxatu dolorez ta
berriz erori da
zikintzeko beldurrak
loyaren erdira.

19

Oriyek ikusita
mozkortzen danari
pozik emango nioke
frasko bat edari
ez naiz ikaratuko
esatiaz ori
sekulakoz arekin
eskarmenta beri.

20

Au da errematia
gure arduarena
ia nor asiko dan
mozkortzen aurrena
bizio guzietan
ori da txarrena
mandamentu guziak
galtzen dituena.

POTAJIARENAK

Bilintx-ek jarriyak

1

Egunaren izena
ez dakit nola zan
bañan señalagarri
partidu bat bazan
pillotan jokatzeko
Oyazun-go plazan
nai det nere orduko
gertaera esan
urrengoan beste bat
eskarmenta dezan.

2

Partidua jokatzek
butaku zanian
ostatura joan nintzan
zuzen zuzenian
mayera jana ekartzen
asi ziranian
apaiz bat serbitzen zan
aurren aurrenian
;Sartu zan makiña bat
arren barrenian!

3

Nere ditxa guziak
badute ajia
noski naiz Jaungoikoak
aztutzat lajia
gosiak egin nuen
ango biajia
kulpa zuen arentzat
daukat korajia
;Apaiz batek jan zuen
nere potajia!

4

Zintzur ona zuela
ondo siñaliak
eman zituen apaiz
babarrun zaliak
dozenaka tragatzen
zituen aliak
maskatu ere gabe
tripazai jaliak
alako aisa nola
antxua baliak.

5

Tragatutzen zituen
igar ta ezeak
ez ziran arren diña
zetozen klaseak
agertu orduko zeuzkan
tripara paseak
kortesiya gabeko
txapela luzeak
arrek naikua jan ta
ni berriz goseak.

6

Geroztik ostatuan
sartu ordurako
galdea egin gabe
ez det nik faltako
egun artako apaiza
ote dan arako
ez apaiz guziak
berdin diralako
baizik batek bildurra
sartu ziralako.

MUNDUAREN ASIERAKO BERTSOAK

Txirritak jarriyak

1

Denbora leku zeru ta lurrak
izar da illargi eguzkiya
kristaba aiziak animaliyak
ur gezak eta gaziyak
Aita Eternuak sei egunian
egin zituen guziyak
merezi du ta eman zaizkagun
eskerrak eta grazziyak.

2

Aita Eternuak Adan da Eba
egin zituen aurrena
lendabiziko gizasemia
emakumia urrena
baratza frutaz bete betia
sartu zituan barrena
bañan etzuten ondo kunplitu
eman ziyoten ordena.

3

Demoniyuak ziyon Ebari
fruta artatik jan zazu
Aita Eternuak dakien ainbat
orduak jakingo dezu
berak ori nai ez duelako
zuri debekatu dizu
orra nik esan egi aundi bat
gusto dezuna izazu.

4

Allegatu zan Adan da Ebari
fruta ortatik jatia
etzan posible mundu ontatik
inñor zerura juatia
ayek kunplitu etzutelako
Jaunaren borondatia
itxi ziguten guziyentzako
zuruetako atia.

5

Adanen seme Kain da Abel
igualak izan eztia
inbiriaren gorroto biziz
il zuten batak bestia.
arrazoyaren biderik gabe
anaya zarrak gaztia
alakuari kostako zayo
zerua irabaztia.

6

Lau milla urtian egondu zi-
zeruko atiak itxita [ran
anima triste asko an zeuden
linbo beltzera jetxita
betiko ala biarko zala
beren artian etsita
zorionian egin ziyoten
Salbadoriak bisita.

7

Al dan maizena erreza zagan
nere Jesukristo Jauna
Jakiñik dala Jaungoiko eta
gizon egiazko ona
gurutze pisu baten azpiyan
aiñ gogoz iltzera juana
guri atiak zabaldu eta
orain Zeruan dagona.

8

Kristau guziyak siñista zagan
Eskriturak dakarrena
zeru ta lurren agintariya
Jesukristo da aurrena
eskubidiak arek emanda
Aita Santua urrena
Batikanoko artzai umilla
Pio amabigarrena.

9

Kristoren bidez Apostoluak
zabaldu zuten kredua
ayen autikan ateria da
lendabiziko kredua
mandamentuko artikuluak
dotriñan dauden modua
oyek sinisten ez dituenik
ez da sartuko zerua.

10

Aita Santua Erroman dago
oso gizon seriyua
abisatzen du gañian dala
guziyentzat eriyua
gaiztuenari barkatutzeko
badu erremediya
orregatikan deitzen diyogu
Kristoren bikariyua.

11

Amaika bider letu izan det
lengo dotriña zarretik
gezurra esanda ez gera libre
pekatuaren zorretik
bi aldetara partitu biagu
Jesukristoren aurretik
ezkerretako gelditzen danak
pagatuko du larrutik.

12

Kondenatuen azken fiñeko
penagarritzko pausuak
bi itz bakarrak esango dizka
gure Jaun amosuak
oraiñ ezdago barkaziyorik
kunplitu dira plazuak
zure pagua emango dizu
serbitu dezun maisuak.

AZKEN JUIZIYOKO EGUNA

Xenpelar-ek jarriyak

1

Komeni diran bertso berriak
esplikatu al banitza
aditutzia desio duen
bati eman diot itza
baileak eta soñu ederrak
engañaturik gabiltza
animarentzat kaltean dator
gure munduko bizitza.

2

Abenduaren lendabiziko
goizeko zazpietan zen
tenplo santuan egondua naiz
sermoi eder bat aditzen
Jesusen ilagak preziosoak
astera nua berritzen
Zeruko Aita lagun zaidazu
entendimentua argitzen.

3

Pekatariryak artu dezagun
doloria biotzian
Jesusek zenbat sufritu zuan
gugatik eriyotzian
firme gabiltzan faltatu gabe
Fede Santuko itzian
gero anima izan ez dedin
infernurako iltzian.

4

Nere kristauak birian dator
azken juiziyoko eguna
jakiña dago begien bistan
ikusitza bear deguna
josafat-eko zelai santuan
tronpeta soñu illuna
galduak pena eramango du
justuarentzat fortuna.

5

Munduko gauzen errematia
dakar azken juiziyok
auts biurtuta utziko ditu
erri ta palaziyok
mendiak lertu alkarren kon-
erreiñu ta naziyoak [tra
sententzi ori botako digu
Jesusen bendiziyok:

6

Itxasoak su eguzkia illun
illargia odolak artu
lurrak ikara eta gañera
errio danak agortu
munduko gauzak baliosoak
erre ta ikatz biurtu
pekatariak umil gaitzean
bada zerekin bildurtu.

7

Eriotzaren larritasuna
suspirioa barrendik
nai ez degula bertan ill biar
anparo gabe inondik
Josafat-eko zelai santura
juango gera emendik
ez da zeruan sartuko Jesus
desanparatzen duanik.

8

Jesus Zerutik Josafat-era
aingeruakin batean
pekatarien artzai umilla
badator oyen tartean
zelai santura juango gera
bire guztiak batean
gure orduko larritasuna
sententziya eman artean.

9

Alkarren bistan emango digu
sententziya bat zorrotza
gure obrak an azaldu bear
gaiztoarentzat zer lotsa
pekatariak altza dezagun
Jesusengana biotza
konsideratu gugatik nola
pasa zuan eriotza.

10

Josafat-eko zelai santuan
asko degu ikusiko
Jesus nola dan sententzia bat
guri ematen asiko
gaiztuak danak infernurako
onak ez du mereziko
justuarentzat zeruan silla
eternidade guttiko.

11

Aita Santu ta errege oyeak
obispo ta apaiz guztiak
pobre ta aberats diranak ber-
maisur orren justiziak [diñ
diruak ez du an balioko
ori gaude ikasiak
zeñi berea emango dio
Jaungoikuaren graziak.

12

Anima galdu baten tormentu
eta naigabe aundiak
zer diran ezin konsideratu
gizonaren memoriak
eternidade guttiko penak
ez ayen mende jarriak
orra munduko gustoak eta
egun engañagarriak.

13

Guztiok gera pekatariak
deseoz edo obretan
tentazioak guretzat dira
ezta dudarik orretan
gorputz argala erortzen bada
bere biziyo txarretan
gero anima entregatzen du
etsayen atzaparretan.

14

Bi bire daude ezker ta eskubi
komeni da ikastia
aukera daude bata Zerura
Infernurako bestia
gure anima Jaungoikuari
ainbesteraño kosta
eta zer pena artuko duen
Luziferrentzat uztia.

Infernuan da kalabozo bat
mortal ikaragarriya
an sartzen danak ikasiko du
tormentu oyen berriya
Luzifer dago ango errege
ezpatarekin jarriya
arren mendea egon bearra
animak dauka larriya.

Zeruak ditu amabi ate
aingeru bana guardian
urrez murallak egiñak eta
alaja fiñak erdian
gloriak daukan edertasuna
musikaren alegrian
premiyo ori alkantatzera
gabiltzan fede garbian.

JESUKRISTOREN PASIUA

Xenpelar-ek jarriyak

Fedeko egia bat
kantuzko moduan
zer pena pasa zuan
Jesus-ek munduan
ia nere kristabak
aditu kontuan
izan bearko gendun
zerutik kanpuan
Jesuskristo ill ez balitz
gurutze santuan.

Aita Santua Erroman dago
izena Pio deritza
aren kontrako enemiguak
inguraturik gabiltza
Jaungoikuaren birtutea da
beti errenditzen gaitza
kristau fielak kunpli dezagun
Ebanjeliyoko itza.

Bertso berrien errematian
zer datorkigun jakiña
orra nik esan nola bear dan
egiñ justu esamiña
premio ori alkantatzera
enpeñatu alegiña
zu bitarteko eskatzen zaitut
Aingeruen Erregiña.

Paskoaren aurreko
ostegun gaba zan
Jesus odola ixurtzen
egona baratzen
baldin bere Aitaren
borondatia bazan
eriotzatik libratzia
posible ote zan
ezetz esan ziyon ta
oso beldurtu zan

Jesus ordurako zan
Judas-ek saldurik
baita bere anima
betiko galdurik
judu odoltzalia
gaizki formaturik
etziyoten arkitu
inun pekaturik
preso eraman zuten
sokakin loturik.

Ogeita amar dirutan
egiñik tratua
Judas-ek saldu zuan
Jaungoiko justua
bere gaizki egiñaz
txit ernegatua
piko batetik soka
lepotik lotua
ostiral goizian zan
Judas urkatua.

Ainbeste soldadu zan
Jesus lotutzer
andik eraman zuten
Anas-en etxera
gero berriz Kaifas-i
presentatutzer
zer dotriña zedukan
kargu artutzer
Zerutik jetxi zala.
gu salbatutzer.

Pensatu zuten Jesus
zalako erua
buruan sartutzia
arantzaz korua
ainbeste etzan ase
Kaifas-en gogua
Pilatos-i biraldu
Juan Soberanua
onek egin zezala
iltzeko modua.

Pilatos jarrikan
Jesus juzgatzeko
bañan ezin billatu
kulparik iltzeko
gero agindu zuan
azotatutzeko
eriotzarik gabe
ala libratzeko
bañan agindu zuten
gurutzilltatzeko.

Bost milla eta geiago
azote lenbizi
alako martiriorik
eztu inork ikusi
tormentu oyek danak
emanik Jesusi
gero erazo ziyoten
berriz Pilatosi
gurutze baten puntan
biar zala josi.

Ainbeste desafiyo
aditu onduan
Pilatos bildurtu zan
alako moduan
jartzeko gurutze bat
berari lepuan
Kalbayoko mendira
arekin dijuan
Pilatos-ek sententzia
ala eman zuan.

Gurutze bat emanik
bera jositzeko
Kalbarioko puntan
an ikusitzeko
Jesus konformatu zan
danak sufritzeko
borondatez biziya
emen utzitzeko
munduko pekatuak
erremediatzeko.

Jerusalengo kale
orietatikan
mendira artu zuten
sokaz loturikan
pauso bat eziñ eman
gurutze betikan
Jesus-en enpeñuak
ziran gugatikan
libratziagatikan
gu pekatutikan.

Kalbarioko mendi
bide gogorrian
iru bider erori zan
Jesuskristo Iurrian
bere Ama Santisima
zijuau aurrian
ikusirik semia
eziñ egiñian
zer pena egongo zan
aren barrevian.

Laguntzeko artu zuan
Simon Zirineo
Ojala pentsatuko
balitz egunero
ibilli ez gaitezen
damututa gero
Simon-en pausuetan
jarraitzia dago
bost aldiz aritzen da
kulpitutik klaro.

Allegatu ziranian
mendi santu artan
illtziakin josi zuten
esku ta oñetan
zeru lurren Jabia
gurutze orretan
gure salbazio eske
Aitari benetan
zeñi etzayo jartzen
biyotza penetan.

Amabiyetan zuten
gurutzian jarri
zorrak pagatutzeko
pekatariari
erregua egin ziyon
Aita Eternuari
arren barkatutzeko
aren etsayari
orra zenbat nai zigun
Jesuskristo-k guri.

Zer pena pasa zuan
Jesus-ek gugatik
zintzillik iru ordu
gurutze batetik
lantza sartu ziyoten
bular sagradutik
alare biziko zan
oyek danak gatik
borondatez ill zan gu
salbatziagatik.

Kunplimentu emanik
Jesus-ek lanari
pekatariyagatik
artu zuanari
San Juan utzi ziyon
bere ordez Amari
espiritua berriz
Aita Eternuari
despedida egin ziyon
mundu guziyari.

SANTA AGEDAREN BERTSOAK

Bedeinkatua izan dedilla
etxe onetako jentea
pobre ta umil dabilleneztat
badute borondatea
Santa martiri maitea
dago errukiz betea
berak alkanzatu dagiela
osasuna ta pakea.

Libertadea eskatzen diot
etxeko printzipalari
Santa Agedaren alabantzak
kantatutzera nua ni
graziak dizkat ipiñi
Santa bedeinkatu oni
onen fedean bizi gaitezen
osasunez eta ongi.

3

Nork esango du zer pasa duan munduan Santa Agedak lendabiziko azotatuta kendu zizkaten bularrak gorrotuaren indarrak jentillen biotz gogorrek istant batian estali zion gorputz guztia odolak.

4

Santa au preso sartu zanian zan milagro bat aundia zeruetatik jatsi zitzaion Jaungoikoaren argia milagro ikaragarria Santa onen alegria San Pedrok berak kuratu zion Santari gorputz guztia.

5

Borrero gogor oyeke diote ilko da gaurko gabian len bezin firme billatu zuten Santa au biramunian esan zioten onian nai dezu gure legian? bestela presentatuko zera Kinzianoren aurrion.

6

Berriz Emperadoreak dio eramateko argana dontzella gaztiaren biotza len bezin firme darama Jaun zerukuak emana orain berakin duana zer amorio aundia zuen gure Jaungoikuagana.

7

Martiri oni galdetzen dio zeña zegoan ixilik adora itzazu gure jainkoak baldin nai bazu bizirik itz oriek aditurik Santak dio bat bakarrik nik adoratzan detana baño ez dago gizon besterik.

8

Zer baloria eraman zuan etsai gaiztoen aurrera umildadezko bere begiak itzulirikan lurrera Emperadore kruela au beti bere legera arrastaka ta desonratuaz atera bedi kalera.

9

Orduan erantzun zien Jaungoikuari graziak baño borrero jentil gogorrek zeuden gorrotoz josiak Santaren fede bizia Jaunaren probidentzia lurrak ikara egin zuen ta arritu ziran guziak.

10

Pareta aundi bat erori zan ikara aren puntuan Emperadore aren lagun bi azpian artu zituan ikusirikan orduan ayek alako moduan zer milagroak gertatu ziran Santa onekin munduan.

11

Jentil gogorren eskuetatik sartu zun kalabozuan agoniako ordu santuan ondo ezagutu zuan iltzen zegoan orduan Jesusi oska zeguan orain gloriak gozatzan dago aingeruakin zeruan.

12

Kristau deboto batzuek zuten gorputz santua an artu Kataniako zitudadean baita ere enterratu kristauak, konsideratu au onela zan gertatu karidadean ematen dana berak oi die pagatu.

13

Adios orain esaten diet Santa onekin batean urte ontxo bat pasa dezaten osasunez ta pakean pobre umillen artean beti erruki gaitean karidadeak lagunduko du zeruetako atean.

SANTA AGEDAREN KOPLAK

1

Nagusi jauna aurrera, erreberentzia lurrera, lotsa gerala etorri gera, jauna, berorren aurrera.

2

Alkate jaunaz egondu gera atzoko arratsaldean, libertadea gerekin degu ibillitzeko pakean.

3

Eder elizan liburu, usuak aren inguru, etxe onetako txiki aundiak Paradisuan aingeru.

4

Eder elizan aldare, arri labratuz pillare, Birjiña Amaren eskojituak etxe onetan dirade.

Usua dua otara,
nere begiak lotara,
oraintxe nua, nagusi jauna,
berorren koplaetara.

Eder soruan goldia,
soñian kapa moria,
etxe onetako nagusi jauna
ondo gizontxo noblia.

Eder zeruan izarra,
erreka aldian lizarra,
etxe onetako nagusi jaunak
urre gorritzko bizarra.

Urregorritzko bizarra eta
diamantezko espalda,
berori bezin gizon presturik
erri onetan ez al da.

Eder intxoren kordena,
alaxe degu ordena,
etxeke andria koplatutzeko
nagusiaeren urrena.

Etxeko andria orra ona,
zere gauzaren doi ona,
Pasko goizian jantziko ituzu
zere soñean amar gona.

Txuri nabarra azpiko,
gorri ederra gañeko,
andria, zure parerik ez da
plaza bat onratutzeko.

Eder basuan espala,
nik ezin esan bestela,
zure besoan lo egin lezake
Paradisuan bezela.

Arantza beltzak ostrua txiki,
puntara zaku loratu,
orain emendik biar genduke
zaldun gazte bat koplatu.

Orra or goyan iturri,
ura txorrotik erori,
etxe onetako zaldun gaztiak
amalau urre txintzarri.

Amalau urre txintxarrirekin
zazpi damaren eguzki,
ayek guziak ala izanik
geyago ditu merezi.

Arantza beltzak ostrua txiki,
puntara zaku loratu,
erain emendik biar genduke
dama gazte bat koplatu.

Damatxu gazte konpondua,
ori kolore gorria,
zure matralla iruritzen zat
krabeliñaren orria.

Krabeliñaren orriarekin
larrosa mayatzekoa,
zeuri begira ementxe nago
damatxu biotzekoa.

Eder ezpata magiarekin,
magia prontalarekin,
etxeke andria etorri zaigu
eskuan limosnarekin.

Limosna ere artu degu ta
orain abia gaitian,
adiosikan ez degu eta
agur ikusi artian.

OTXANDIOKO ASTOTXO BATI

Ogei bat bertso bakar baka-
gura nituke atera [rrik
geure euskeran zergaitik ondo
nik ez dakidan erdera
eta euskera erdera baño
kantatzen askoz obe da
neure etxeke gertaera bat
esaten noa astera.

Mandakotzako beti izan dot
asto baten egarria
lenengoakin baño nik ez dot
izan fortuna andia
tranparik inok sartu deustala
ez da gaur nire eretxia
ezpan biakin bere faltia
daukalako ondo itxia.

Arotza daukat ofizioa
beste askoren antzera
Aiskide batek dei egin eustan
arbola batzuk lantzera
asto bat eukan nire asmorako
gazte polit ta ederra
irurogeta amar erlean
ekarri neban etxera.

Juan Anton lengo asto jau-
eukan keja bat bakarra [biak
etxe ondoko solora sartzen
jakola asto txikarra
desgrazia bat nik izan neban
egun atantxe zakarra
uste bagarik gertatu jatan
astotxo onen biarra.

Ankia ebagi deskuidoz neban askorarekin orduan asto premiñan aurkitu nin-üste ez neban moduan [tzan Ez nebala nik ezertxo gaidu pensatzen neban tratuan listuak bere egiñ oi dabez sarritan utsak munduan.

Zelan saldu zan len bere as-irurogeta amar-lian [to au Juan Anton ta ni prezio orre-bere konpondu giñian [tan saldu egingo neuke nik bere zerbait galduta urrian zefiek erosi baña ezin dot billatu gure errian.

Mandakotzako andi egingo zala, astoaz pozturik ankako miña esperanza onek itxiten eustan azturik asto gañian neure etxera etorri nintzan arrorik Meltxior Lastra guztiz dotore kaballero bat egiñik.

Astotxo onek eukan famia zala solora zalia eta nik badot solorik asko bete dagian tripia baña ezin dau batu bedarrik agoan dauka faltia goiko agiñak azpikoakin ezin egiñik juntia.

Nik enekian eukala agiñik desberdin oker ta gaizki baldin falta ori jakin banue-egingo ez neban erosi [tsa pentsuaz eta bedar igarraz asto onek nai dau bizi alan jaterik gure etxian ez daike erraz ikusi.

Soloan ezin asto onek dau bedar berderik ebagi ez dakit zelan len solorako eukan ainbeste egarri ezin daikela triparik bete nunbait an deutsa igarri makillaz bere basoruntz ezin eragin deusat berari.

Beste gauza bat somatzen astotxo oni barria [deusat lenago au zan umil ta mutu gaur da arranzalaria bere soñua baña etxaķu guri atsegiarria kamaran ifioz billatu dogu artatzen lotsagarria.

Euri asko zan egun batian ipiñi ninduan sutan arrebak gogor egin ez baleust itoko neban errekan sententzi ori eukanik baña apenas deusku pentsetau len sarri eta gaur sarriago kamaran dogu topetan.

Baña astotxo onek baditu prenda ederrak bere asko kargarik ez dau sekula bota ezta sekula botako jeniua dau oso noblia indar polita kargako mandakotzako balitza ona eneuke saldu gurako.

Abildadiak andiak daukaz eskalleretan igoten lengo domekan etorri jakun jenterik asko ikusten aguro igo ta aguroago ikusi arren jatsiten komediante ez nazalako dirurik emon ez eusten.

Noz etorriko begira nago ona komediantiak erakusteko astotxo onen abilidade andiak udara arte baña ez datoz onuntz alako jentiaķ onza bat urre neukela artuko esaten deuste guztiak.

Alperrik izan bere mantena asko kostatzen jatana ullia baleu seda fin fiña pagauko leuskit dan dana begiak ondo gorderik daukaz mokor aldia bedarra artzat obeto saldu leiteke astotzat artu nebana.

Ez da larregi desiatzeko gauzarik ezer munduan geienez kontra ateratzen da astotxo onen moduan mandakotzako urtengo zalaz poztuten giñan goguan ta urtian batxo egin ezkeru mutilla nintzan orduan.

Baña gaur dakit baliatzeko modurik ez dagoala asto au txiki gelditu da ta gañera dago makala iñok erosi nai badau betor Meltxior de Lastragana saltzera ez dot atera gura animala au plazara.

Orra zelako kontuak diran asto onekin gertatu txiki makalik gura dabenak ementxe daike billatu indar gitxitxo dau lanerako baña fin oi da saiatu mandakotzako dan bategaitik egingo neuke trukatu.

Orain amaitzen dira bertsuok gogo argitxo jarriak fama andi bat artu dagian astotxo barregarriak merezi ditu ateratia alako animaliaķ ta amar zentimo pagau leiz [pozik bertso zale dan guztiak.

BIZKAIKO TXERRIYAREN BERTSUAK

1

Notizi bat nigana
dago etorria
publikatuko banu
txit parragarria
Bizkayan egin dute
prueba berria
kutxillorikan gabe
iltzea txerria
erakutsi diote
istillu gorria.

2

Bi familiak zuten
nolabait azia
erdi banan jateko
kendu nai bizia
abillak egundafio
beti malizia
ezin izandu dute
egin justizia
beintzat eskapatzeko
izan du grazia.

3

Famili ori nor dan
nai dezute jakin
bi gizon ta bi andre
beren izenakin
gizona bat Pepetxo
bestia Antolin
emakumiak berriz
Ana ta Katalin
laurak ere bazuten
naikua zer egiñ.

4

Naikua egin dute
oyek somatzeko
bere odol da guzti
lastoz erretzeko
zokor mazua zuten
buruan jotzeko
idiari bezela
kordia kentzeko
arakin bearrikan
etzuten iltzeko.

5

Mazuarekin jo du
Pepetxok buruan
txerria galditu da
ildako moduan
erretzen para dute
lastuaren suan
polañak jaso ditu
sutu dan orduan
deabruak arturik
igesi da juan.

6

Bizkarra erria ta
kolia buruan
Jaungoikoak badaki
zer ikusi duan
eriyuan igesi
bere empeñuan
kamiñuan azpian
sartu da kañuan
gero billatu dute
kurriñka soñuan.

7

Txerri ori zeukaten
barruan sarturik
gorde leku polit bat
beretzat arturik
billatu dutenian
kontentuz beterik
ez dauka len bezela
igesi juaterik
ustez gelditu ziran
aseguraturik.

8

Zuek emakumiak
egin emen kargu
abiatzen danian
gogotikan eldu
guk beste aldetikan
sayatuko degu
lastua len bezela
sutuko diogu
azaria bezela
aterako degu.

9

Lastua len bezela
sutu dutenian
atsuak bota ditu
kañu baztarrarian
mokaurikan etzuan
artutzen larrian
asko korritua da
ez dago urrian
pakea emango du
Bizkaiko lurrian.

10

Adios egin die
kañuko atian
zuen bildurrik ez det
aurtengo urtian
billa ibilli dira
bolara batian
egindako pausuak
berentzat kaltian
apenas gelditu da
Montaña artian.

11

Triste gelditua da
familia dana
batez ere gaxuak
Katalin da Ana
zeñek ezdu artuko
biotzian pena
gauza eskuratua
igesi juana
españak koipatzeko
buruz bide ona.

12

Egingo nuke apostu
aditu dedanez
eztirala antojatzen
aurten urdei janez
gaizki gelditu dira
txerria il gabez
beatzak txupatzeko
alibiorik ez
olua bearko
koipearen orde.

Garizuma santua
izanagatikan
ez daukate pekatu
egin beldurrikan
auzotik ez badator
erregalorikan
iñola ezin ausi
bijiliarikan
aurten ez dute oye
Bulda bearrikan.

Txerri ori omen zan
kastaz sorayua
pareta zar askori
gañera iyua
litxarreriarako
bere jenyua
gorputzetikan ezta
mamiz jariyua
sei duroz pagatzen da
orren baliyua.

VALENTIN BERRIOCHOA

Elorriyo-ko seme ta Tonkin-^o Obispo jaunaren
bizitza. 1861-garren urtean, Domu santuetan,
Zenturian martirizatu

Milla zortzireun irurogei ta
au zazpigarren urtia
Kristo zerutik jetsi zanetik
oneraño bitartia
iru obispok pasatu duten
martiriyuaren fuertia
penagarriya izan da oyen
munduko errematia.

Artorik apenas du
etxian ikusi
egunian bi aldiz
osiñak egosi
beste aziorikan
etzuen merezi
argala dan medioz
juan da igesi
urrenguan obeto
gizenduta azi.

Orra amasei bertso
bizkaitar oyeri
motibo orrentzako
eztira geyegi
iñork jakin nai badu
gauza orren berri
zein lekutan pasa dan
komeria ori
galdefu Azpeitiko
ustargilliari.

Baten bizitza kanta dezadan
au da bigarren bertsoa
Elorrioko naturala da
Balentin Berriotxoa
aita ta ama Bizkaian daude
semia an il gaxoa
salbajietan kunplitu zayo
eriotzako plazoa.

Amairu urtetik amabostera
estudiyoak ikasi
gero aitaren ofiziyoa
erakusten zuten asi
gogoan zeukan apaiz eginda
nayago zuela bizi
tormentu gutxi mundu one-
eztu beragan ikusi. [tan

Berrogei urte orain zituen
gertatu balitz bizirik
ogei ta zazpi lendabiziko
estudiatzen asirik
seminario batera joan zan
agotziyan ikasirik
negarrez nabil aren pausoak
ezin adierazirik.

Seminario eder batian
Logroñoan apaiz egiña
beste guziak bañan lenago
ikasirik esamiña
buru abilla izanik eta
fede santurako fiña
negarrez urtu leiteke artaz
akordatuko bagiña.

Ogei ta lau urte zituen
etzeukan memori illa
kolejioko maisuak beziñ
estudiante abilla
Obispo jaunak ezagaturik
justua eta umilla
agindu zuen meza eman ta
erretiratu dedilla.

Goizero lauak jotzian meza
eman ta konfesiyoa
barau egiñez obra onetan
pasatzen zuen denbora
pobrerik iñoiz etortzen bazan
eskian atai ondora
bere ogia ari eman ta
Deboziyoa gogora.

Logroñoan meza eman zuen ta
Elorriora etorri
predikatzen ta konfesiyan
bere errian zan jarri
Azpeitiyako San Inaziyon
bişita egin du sarri
azkenerako arren pausoak
ziraden lastimagarri.

Suertatu da gure Balentin
San Inaziyon sartzia
pentsatu zuen ango padria
adbertentziyan artzia
nola nai zuen Santo Domin-
zeukan jantziya jartzia [gok
eta fabore egingo ziyon
al bazuen ekartzia.

Ango padriak maite izanik
ipiñi zuan kontuan
agindu ziyon sartu zedilla
Okañako komentuan
bire guziyan eskian joan zan
gabak askotan kanpuan
bere gorputza azotatuaz
allegatzen zan lekuan.

Allegatu zan Okañara ta eman ziyoten jantziya berak nai zuen gorputzaren-alako penitentziya [tzat munduko gauzak guztiyak alde batera utziya [beti neke trabaju naigabietan artu du pazientziya.

Gure Balentin Berriotxoak egin zituen pausoak konsideratzen jarri ezkeror dirade lastimosoak beti negarrez Jesusengana zabaldurikan besoak aren biotza konsolatzen du zeruko usai gozoak.

Pasiatzera etzan joaten komentu lagunarekin etxian zeukan tertulia ona errosario birekin bere gorputza martirizatzen azote diziplinakin oraziyoak baliyo badu zeruan dago Balentin.

Bakardadian oneraño zan Balentiniñen istoriya Okañatikan Manila ziran zortzi ministro abiya barkuan ere sufritu dute makiña bat komeriya biotza penaz urtu leiteke ez baldin bada arriya.

Okañatikan Manilaraño barkuan bost illabete jakiña dago izango zala asko leguaz aparte zortzi ministro oyen artian au zan sobresaliente gure Balentin ango maisuak obispo nombratu dute.

Ango padriak agindu ziyon eskubidia artzeko predikatutzen asi zedilla kristandadian jartzeko konfesiyo ta barau egunak animaz akordatzeko pekatuaren mantxa Judasen kalabozuan sartzeko.

Artua jan ta ura erari arri gañian lo egin beti Jesusi erregututzen gugaz akordatu dedin kristandadia nai zuenari konfesiyoak eragin jakiña dago salbajiakin etzeguela atsegin.

Erreiñu artan gobernadore salbajien nagusiya Jaungoikuaren bildur gabia estranjeriyan aziya relijiyoko fede santuan jarri nai duen guziya agindu zuen plazan kentzeko ezpatarekin biziya.

Garagarrillen lendabiziko goizian ziraden asi arratserako bost milletatik etzan granorikan bizi fede santuko kristauak iltzen zituenian ikusi Balentin bere lagunetara abiatu zan igesi.

Pedro Almato eta bestia Jeronimo Ermosilla gero Balentin Berriotxo saltatu zan oben billa iru obispo juntatu ziran zeukaten biotz umilla ayen bizitza laister izan da martirizatu ta illa.

Arrapatuta kate gogorrez lotuak zeuden alkarri iltzeko eman sententziya ta kartzela banetan jarri soldadu tropa baten erdiyan gero plazara ekarri ezpatarekin lepoak moztu dizkate lastimagarri.

Orretarako eskatu zuten ordu beteko lekua Jaungoikuari egin artian bere ofrezimentua gobernadore batek eman du pena kantidadekua iñor ayetaz damutzen bada bertan kentzeko lepua.

Iru obispo oyen gorputzak ogei ta lau orduan iduki eta enterratuak urrikaltzeko moduan Orientalko probintziyan da Jendat deitzen dan lekuan erregutzen det ayen animak gerta ditezen zeruan.

Orra ogei ta lau bertso berri ejemplo eder batian oroipengarri kanta ditzaten pekatarien artian ai nere Jesus eskatzen dizut graziya errematian komeni da ta sartu gaitzazu zeruetako atian.

BERE LENGUSIÑA BATERI, AREN EZKONTZAN

Azpillaga-k

1

Pozez beterik nagon garaian
eraso bear lanari
zarren gustua bertsoz egin
bakarrik ez gazteari [nai
Besarkada bat eman ondoren
nere lengusiñeari
lagun senide eta guraso
emen diranak agiri
txalo bizi bat jo zaiozue
danok ezkon-berriari.

2

Anai arrebak ez gera baña
lengusuak baño geyo
plater bateko janariz azi
ia kabi baten jayo
guk izan degu anai-arreba
askok ez aña amodiyo
ta oraingoan banatu gera
ezkontza dala mediyo
bere zor leku **TORRE-ZA-**
[RRARI
agur on bat egin diyo.

5

Nere bertsoak azaldu ditu
maitasun ezaugarriak
danak negarrez zuen biotzak
ez dira marmol ta arriak
kabi zarraren bake santua
eztu pagatzen urriak
au gogorrigo esango nuke
al balu nere eztarriak
ta azkenean danok erantzun
GORA GAUR EZKON-BE-
[RRIAK.

3

Zeñek neurtu gure arteko
anai-arrebatasunak
oiturak berdiñ dakiguz biok
ao batetik entzunak
kabi zarraren abatik datoz
bakearen laztasunak
gerra osteko urte latzetan
zelako estutasunak
Jaun-Goikuari milloi bat es-
sendo deguz osasunak. [ker

4

Irailak duan zortzian ditu
oitalau urte pasiak
nik ere laister betetzen ditut
ez dira izan luziak
bikiak diran bezelaxenik
gerade biok aziak
urte txarrean jaiok baña
pasatu dira guziak
geure tokitan poz pozki gau-
Jaun-Goikoari graziak. [de

BETROI BATI

Xenpelar

1

Milla zortziren da i-
rurogeita biyan
bertso bi jarritzeko
nua abiyan
betroi bat artu nuen
Ernaniñ feriyen
galantziya egingo
nuela agiyan
beti auleriyan
tristura begiyan
ez aren premiyan
nere fameliyan
Xenpelarrek daukazki
Errenteriyen.

2

Ostegun jua danian
amabost Ernaniñ
betroi baten tratua
genduen egiñ
Inazio saltzalle
erostuna Permiñ
emeretzi ezkutu
geniyon eragiñ
sabelian du miñ
iñork ase eziñ
artuari muziñ
eztu nai edoziñ
atzetik biar ditu
zazpi medeziñ.

3

Oraindik gaztia da
egei ta sei urte
ernari omen dauzka
host illabete
nik ez diyot igartzen
ala esan dute
gezurra baldin bada
engañatu naute
ezurak txit torpe
zañak dauzka fuerte
aragiya aparte
zeñek nai du merke
zikiro baten truka
emango nuke.

4

Orren arbolatikan
datorren loria
frutua konserbatzen
pare gabia
alabatu nai diyot
bere onoria
umatzen baldin bada
ai zer poderia!
arren koloria
baltza ta moria
juan zayo floria
lenago obia
nere fameliyaren
ondadoria.

Notizi txarrak dira
 orrentzat auzotik
 besua ateria
 urgun besotik
 estula ta antsiya.
 ukullo zulotik
 desterratuko nuke
 nik nere bototik
 amarra lepotik
 ta grilluz orpotik
 makillaz odotik
 jotzen det gogotik.
 eztiyo ajolarik
 ezerengatik.

Burua jarri zayo
 lurrera begira
 belarriyak zintzilik
 ai zer segira!
 albaiteko guziyak
 ikaratzen dira
 ikusi dutenian
 ark daukan erida
 bajatzen ari da.
 irutatik bira
 au nere perdida!
 nork nai du erdira.
 baña ez det emango
 Euskal Errira.



Begi bat itxua du
 adar biyak motzak
 krixillua diruri
 arren kokotzak
 ikaratutzen gaitu
 estularen otsak
 farra egiten dute
 Elizatik ontzak
 sano dauzka ortzak
 agiñak zorrotzak
 tristura biotzak
 dantzan dabill otzak
 ez diyo onik egiñ
 leku arrotzak.

Borroka dabillega
 jua zaizka adarrak,
 eziñ sujetaturik
 bere indarrak
 talentu onak dauzka
 gure betroi zarrak,
 lurrera botatzen du
 elbiyaren kargak
 ganadu elbarrak
 juntura igarrak
 jendiaren farrak
 ez dirade txarrak
 burrunztiya diruri
 arren bizkarrak.

Nere betroyak ez du
 auko loalia,
 egunero nairikan
 ogi alia.
 alare ezin jaso
 lepoko joalia.
 burua makurtuta
 zerbaiten galdia.
 arren saldalia
 ez da debaldia.
 gauza on zalia
 bizkotxo jalia,
 malezi asko duen
 arrantzalia.

Kara iguala du
 aurrian ta atzian
 basurdia dirudi
 zutik jartzian.
 konsuelo bat daukat
 nere biyotzian.
 bizirik aterako
 balitz ilbeltzian.
 ori umatzian
 esnia etxian
 gazta abatsian.
 gazura arratzian
 belarrak gizenduko
 du mayatzian.

Urriak jua eta
 ajiak azaldu,
 daukanak obe zuen
 artu ez balu,
 etxetikan kanpora
 ezin det bialdu,
 joka asten naiz baño
 laister urrikaldu.
 aragiya galdu,
 larrua ona du
 ezurra onradu
 frantzesak nai badu
 laban kertenetako
 obe det saldu.

Orra bertso berriyak
 Xenpelarrek para
 nai duenak erosi
 badu aukera
 ustez alabatu det
 betroyaren kara,
 ukulluan estulka
 pasatzen du gaba.
 sano du ijara.
 guziya tripara
 au gure ikara.
 igo da ganbara
 an dauden piper gorri
 danak jatera.

NESKA ZAR BAT TENTATZEN

Txirrita

1

Dozena bat bertso nik
nai nituzke jarri
jayetan kantatzeko
entrenigarri:
nere publikatzia
izango da sarri
alabantzak emanaz
zenbait neska zarri.

2

Neska zar bat tentatzen
asi naiz lenguan,
izan ere alako
polita zeguan,
umil eta seriyo
itz egin genduan,
baño gusto guziyak
ez dira munduan.

3

Izketan asi giñan
biyak gozo gozo,
ezkontzeko mandatu
egin diyot atzo:
leyotikan ujuka
ama ta bi atso:
—ez dek arrapatuko
uste bezin mantso.

4

Ama preparatu zait
asarrez betia,
lenbiziko ujua
—zenbat dek dotia?
ainbeste kostatako
alaba maitia,
lastima izango dek,
iri ematia.

5

Zere fameliyari
errespetoz eldu,
inozente daudenak
ez ditezen galdu
ez alzayo azaldu?
diru truka alaba
nai zenduke saldu,
lenago gustokorik

6

Nere jakinduriya
ari da atzentzen
errez dala uste du
zenbaitek ezkontzen
promesa on bat eginda
ezpazera ontzen,
lanak izango dira
zurekin konpontzen.

7

Ez dezu sinistu nai
egiya esandare:
zintzua nai genduke
pobria izandare,
obiak nun dare
alabari sasoya
¿gure baztarra baño
pixka bat juandare?

8

Bere alabarentzat
orrenbeste fama
nik ez det sinistatzen
aiziak darama
zure baztarrian nik
egitia lana,
izan liteke baño
ez det uste, ama.

9

Ez al dala uste dek
orren errespuestik?
atarramentu onik
mutill zarrak ez dik
nere alabak ez dauka
ezkontzeko kezkek,
i ez bezelakuak
nai ezta dakazkik.

10

Itz bat esan biar det
nere borondatez,
ez banau inork lotzen
grilluz edo katez
ezkontzeko ideak
banituan ustez,
ardua maitatzen det
andriaren partez.

11

Mutill malizioso
deabruz betia
ez dizut zabalduko
geyago atia
befiere etzaitut izan
biotzez maitia
nigandik libre zera
or konpon zaitia.

12

Orra amabi bertso
oraingo berriyak
bere andregayari
Txiritak jarriyak
eman dizkit disgusto
ikaragarriyak
negar egin lezake
nigatik arriyak.

DOMINGO KANPAÑA

Bilintx

Mando baten gañian
Domingo Kanpaña
ez dijua utsikan
mando orren gaña
azpiyan dijoana
mandoa da, baña
gañekoa ere, bada
azpikoa aña
mando baten gañian
bestea alajaña!

IRIYARENA

1

Sekulan ezta sartu izandu
donostiarrik zeruan
nunbait etzuten meriturikan
irabazitzen munduan
gaxuarentzat Jaungoikoaren
justiziya dan moduan
kondenaturik arkitzen ziran
ayek danak infernuan.

2

Bein bat San Pedro bultza-
[turikan
zeruetara sartu zan
ta beriala presa guziyan
jende tartian gorde zan:
San Pedro berriz billa zebi-
[llen
nunbait azaltzen ote zan:
alegin franko egiñagatik
iñundik ageri etzan.

3

Orduan Pedro Jaunarengana
larri juan zan beriala
eta esan zion donostiarra
zeruetan sartu zala
jende tartian ezkatututa
eziñ billatu zuala
infernaruko destinatua
anima ura zeguala.

4

Jaunak Pedrori modu onetan
eman zion errespuesta:
—Donostiarra izan ezkeru
billatzen txit gaitza ezta
Iriyarena danboliñakin
jotzen astia da basta
pozik saltoka ekingo diyo
zeruan dalako festa.

5

Iriyarena danboliñakin
jotzen ziranian asi
donostiarra danen artian
saltoka zuten ikusi
San Pedro berriz arren ondo-
egiñ baño len igesi [ren
arrapatuta zeruetatik
infernura zuten jetxi.

6

Berialaxe an sartu zuten
bere lagunen onduan
Donostiako kontu guztiyak
gogoratutzen orduan
demoniyuak ikusirikan
pozturik galdetu zuan:
aber benetan ote ziraden
karnabalak infernuan.

7

Geroztik beti an arkitzen da
infernuan penatutzen
bere zeruko pasadizua
erritarrari kontatzen
alaxen diyo: berriro banitz
ni berriz orla gertatzen
Iriyarena juagatikan
ez naiz asiko saltatzen.

8

Deabru ayek beren kontura
donostiarra arturik
zulo batera an bota zuten
kate gogorrez loturik
toki artako berotasunez
biziro egarriturik
galdetu zuan: ez alda emen
iñun sagardoteririk?

9

Orain azitzen ari dalako
Donostiyako erriya
demoniyuak omen daukate
berebiziko larriya
bildurturikan lengoko zarra
ez dala naiko aundiya
ta egitea pentsatu dute
beste infernu berriya.

10

Baldin geyegi itz egin badet,
jaunak ez zaitezte arritu
uts egiñikan baldin badago,
biar nazute barkatu
donostiarra gaizki nai eta
ez ditut bertsuak sortu
baizik oyeikin karnabaletan
broma nai gendua pasatu.

IYA GURIAK EGIN DU

Xenpelar

1

Iya guriak egin du
badegu zeñek agindu
ez oraindik umildu
alkarregana bildu
gerra nai duen guziya
berari kendu biziya!

2

Okasiyua prestatzen
lotan daudenak esnatzen
etzait neri gustatzen
maliziyari jostatzen
inorekin ibiltzia.
ark merezi du illtzia.

3

Gerraren billa gau t'egun
etsayak arturik lagun
arrazoi ote degun
edo zer datorkigun
asitzerako pensatu
fusillak nola dantzatu.

4

Ez naiz ni gerraren zale
baizik pakiaren alde
zeñek nai duen galde
berari tira alde.
bala bat sartu buruan
aspertuko da orduan.

5

Umildadean alkarri
errespetua ekarri
lege eder bat jarri
bizi gaitezen garbi
ori deseoa nuke nik
ixuri gabe odolik.

6

Gaitzak gerade umiltzen
eta pakean unitzen
ez da errez ibiltzen
anayak alkar illtzen
zer dan entenditu gabe
ortan galduko gerade.

7

Gu gera iru probintzi
lengo legerik ez utzi
oyeri firme eutsi
naiz anka bana autsi
jayoko dira berriyak
gu gera Euskal-Erriyak.

8

Alabes eta bizkaino.
gu gera gipuzkoano
aitak ill ziran baño
semeak oraindaño
legea degu guardatu
letra zarrrik ez ukatu.

ERARI MAITAGARRIYA

R. Artola

1

Erari maitagarriya
zugatik daukat jarriya
argumentu bat larriya
indarra zera gorputzarentzat
kentzen dezu egarriya.
gauza istimagarriya
bañan zauzkat igarriya
zerala engañagarriya.

2

Nik zu nor ziñan ez nekin
eta gogor nizun ekin
fiyaturikan zurekin.
instante batez egin zenduen
nai zenuena nerekin.
biyok gera alkarrekin,
kontuak ziran gurekin
ondoren nor zeran jakin.

3

Batek lezake espero
ondotxo eran ezker
jarriko duela ero,
lotsagarri ta lotsarik gabe
ibilliko dala gero.
korajetsu eta bero.
non nai egiñaz aldero
modu txarrian biziro.

4

Indarra erariyak du
ezin litekena neurtu.
gizona lezake aurtu:
ustez tamañan bein eran eta
ninduen oso moskortu
itz egin ezin ta gortu
bista zitzaidan laburtu.
tratu on bat nuen artu.

5

Gustora eran banuen
ondoren pagatu nuen
deskalabratu ninduen
nere ondotik pasa zan batek
galdetu ziran zer nuen.
ia miñen bat al nuen
nundikan sentitzen nuen
planta onen bat jo nuen.

6

Nai ezduenak orditu
eta ondoren eritu
kontuz eraten aritu
erari klase guztiyak bere
espirituak baditu
gure txintxurak nai ditu
gustoz eraten baditu
naiz gero berak zatitu.

Mudatzen gaitu eranak
mundu onetan geranak
pruebak daduzka emanak.
jeniyo txararak ondutzen ditu
baita ere gaiztotu onak.
aztu orduan esanak
eta egindako lanak
naiz gero damutu danak.

NERE ANDRE ONEKIN

1

S.—Nere andre onekin
txit asarre nabil
izan ere alako
Maritxua dabil
senarra gana ez da
errenditzen umil
obeditzea baño
nayago luke il.

2

A.—Obedituko nuke
merezi bazendu
errespetua iñioz
nork berak galtzen du
oker zabilta eta
nik ezin zuzendu
gure kasketa beti
orrek ekartzen du.

Nere moduan beste bi
eranak sobra erari
buelbaka ziran erori
altxatu nai ta ezin altxarik
loitan zebiltzan igari
jarri ziran guri guri
kasik etziran ageri
eran baitzuten ugari.

3

S.—Nere andre Jasintak
artu dira gala
bertso berriyak jarri
bear dizkadala
kulpa gabe asitzen
bazerade ala
gauza jakiña dago
gaiztua zerala.

4

A.—Publikuan diozu
gaiztua naizela
nik esango dizut zuk
merezi bezela
ia danak aditzen.
jarri ditezela
igarriko dizute
gaizki zabilzala.

S.—Sekulan egin izan
ez dizut gaitzikan
al dezakedanean
mesede baizikan
aditzen badizut nik
orlako itzikan
bizkarrian ez dezu
izango otzikan.

6

A.—Beti beti beldurrez
emen nadukazu
edanekuan beintzat
zitala zera zu
orditu gabe berriz
onik ez daukazu
nerekin bizitzeko
mudatu biasu.

7

S.—Itxuari pegatzen
diozu poliki
zuk ondo jan eta ni
gosiak iduki
senar emaztientzat
au ez da egoki
makilla dantzatutzen
asiko naiz aurki.

8

A.—Makillarekin baldin
ni jotzen banazu
egun asko baño len
damutuko zaizu
itxu aurreko beti
ibiltzen nazu
zuloren batian or
gelditu biasu.

S.—Ni zuluan sartzeko
zaude pregonatzen
ta len berriz gosiak
naukazu penatzen
zerorrek badakizu
ondo gobernatzen
eta ni miseriyen
gosiak akabatzen.

10

A.—Jan edanak baliyo
ez du zuretako
oyen paltan etzaude
simur eta plako
bai inbirioso ta
txarra zeralako
eziñ eramana zuk
andriarentzako.

11

S.—Zeñek sufrituko du
gauza ori ala
nabilki arto utsa
jango nukiala
anka ankari eman
ezin diodala
zu berriz gobernatzen
beti egiñala.

12

A.—Gosiak etzaude zu
gezurra da ori
ez egonagatikan
eder eta guri
suangilla jandako
katua diruri
beretzako au ezin
gustatu iñori.

Zer fameliya izandu degun
jauna, nai aldezu aditu?
amabi aurren aita naiz ni ta
semia amar baditu
lan egiteko iñor gutxi ta
mayian ezin kabitu
baneukake non enpleatua
bost milla duro banitu.

Au adituta beste aldera
buelatu zan nagusiya
esanaz: niz zer kulpa dadu-
zuk ume asko aziya [kat
ez dezu asko istimatzen, nik
egin dizutan graziya
zuek artu nai ez badezute
bada zefiek erosiya.

Eskerrik asko nagusi jauna,
pakian biagu bizi
baña izketan bukatu arte
ez bedi jua igesi
klaro dabillen gizonak ez du
arrazoi txarrik merezi
nai duenari saldu bezayo.
guk ez genezake erosi.

Aziendaz ta lan erramintaz
bagenduan naiko indarra,
ayekin ere ez degu orain
oso alderdi ederra
zazpi baliyo luteken gauzak
bostian eman biarra
au pensatzian etortzen zaigu
begietara negarra.

Amabi lagun mayian bueltan
juntatzen gera jateko
geyenaz ere ayetatik bost
irabazira juateko
pazientziya artuko banu
ainbat ez nuke kalteko
Jaungoikuari eska zayogun
osasuna emateko.

Prezisamente martxatu biau
baserrira edo kalera
norbaiti egin biarko zayo
bizi lekuen galdera
esprikatuaz nola izan dan
fameliyaren galera
gure Jainkuak nai duen arte
nonbait mantenduko al gera.

AIZAK A MOTELL MAÑONZI

Xenpelar

Aizak a motell mañontzi.
urrengorako gorantzi
ez aldakiken or pip'artzia
etzala lizentzi?
Jeniyo txar oyer utzi
bestela ezurrak autsi
gizalegia nola biar dan
ezin erakutsi.

Muzarro

Nik badet gizalegia
Franzisko bañan obia
beste tatxikan etzait arkitzen
arrote pobria.
jeniyua det noblia
kortesi pare gabia
ik neri ezurrak austeko
nun dek abillidadia?

Xenpelar

Ziri bat sartu dit neri
ara bestia berari
abillidade gutxi dagoenik
ez esan iñori
azala daukak ik lori
mamirik ez dek agiri
ezur igarrak austen zallaituk
bazekiyat ori.

Muzarro

Kunplitzak ire ordenak
ez dik kalteko nor denak,
bestela parra egingo ditek
begira daudenak
ik nun daukazkik kemenak
menderatzeko gallenak?
ezur igarrak austen dizkik
indarra duenak.

IJITUARENAK

Txirrita

1

Esplikatzera nua kontuak
ijito jende oyenak
nola diraden gure artian
gertatu izan diranak.
alperrak edo moskorak dira
erdi lapurrak geyenak
okasiyua ta eskandalua
faltatutzen etzayenak.

2

beren asto ta zakur eta ume
emen dabilta jai ta aste.
Mikeletiak iñoiz aurrian
atera izandu dituzte
berak baño len osteria etorri
ta persegitzen gaituzte,
beste alako naziyorik bat
iñon danik ez det uste.

Beren asto ta zakur eta ume dabilta juan etorriyan emakumiak lasto petresto kasikan larru gorriyan gizonak berriz mozketa ai-
[tzaki
beren aitzurak gerriyan siñalien bat utziko dute sartzen badira erriyan.

Emakumiak aurrak artuta eskera dijoaztenian etxeko andre, limosnatxo bat Jainkuaren izenian ofrezimentu luzia baño errezo motza azkenian gauza guziyak gero berentzat iñor bistan eztanian.

Kojitutako aberiakin nola nai duten jokatu emen ostuta aruntz eraman. an saldu edo trukatu anguak berriz onuntz ekarri. jabiak ezin topatu kontu garbiya nai duenak ez ijituakin tratatu.

Ijitetan gutxi izaten dirade berriz antzuak naturalezaz kasta gogorrek ta gañera umetsuak bizkarrian bat, tripan bestia. aldamenetan batzuak sall galantakin ikusten dira dabiltzala geyentsuak.

Usandutako okelak jaten dira pare gabekuak anima salbo, zakur gosiak diraden bezelakuak naiz izan usteldu ta lurpian luzaro egondakuak istimatutzat daramazkite oriyeke orrelakuak.

Sasiyetako oyalak eta ollakojitzen atsuak ta kalietan poltsak miatzen dabilta mutill gaiztuak gizonak berriz mendiyetatik biorra eta astuak gauza gozorik senti badute azkar erantsi eskuak.

Asolbiziyo biarrik ere ezta izaten oyeekin fakultadia Aita Santuak ainbat badute berekin naiz aide izan ezkontzen dira, alkar nai dutenarekin, orretarako gazterik pronto naiz dotriñarik ez jakiñ.

Kontraturako ere ez dute eskribanorik biarrik kastuan zertan ibilli biar du txorakeriyan alperrik naiz aide igual ezkontzen dira igual oriyeke bakarrik bodetarako ardua bada ez da besteren biarrik.

Neska mutillak tokatzen bada berentzat elkar artzia zelebre diran kontuak ortan ere badarabiltzia buruaz gora botako dute autsi dedilla eltzia zenbat puska egin ainbeste ijituen ezkontzia [urteko

Etxe karrera, ola telleri legorrek dauden tokira jeneralian gauetarako erretiratutzen dira atenziyuan egon izan naiz nola dabilzan begira eztute onik asarretuta purrukaten ez badira.

KONFESIYUAREN GAÑIAN

Xenpelar-ek jarriyak

Bertso berriak jartzera nua iñork nai badu ikasi nere burua sartu bear det ortarako lendabizi mundu ontako pasadizua nai nuke adierazi asko gabiltza arrokeriyan Elizagandik igesi geren animaz oroï gaitezen eztu galtzia merezi.

Eskolarikan eztaukat bañan esango ditut egiyak zer sententzia ekarriko dun munduko arrokeriyak Elizarikan ikusi nai ez beti festara begiyak beren buruak apaindu eta nun dira erromeriyak gaztiak nola ibiltzen diran badaki bertsolariyak.

Festara joan da gau ta gau [erdi beren buruak ondutzen zarrak berdintsu ikusten dira oitura txarrak banatzen mundu ontako bizimoduaz jarri naiz konsideratzen anima galdu kulparik gabe gorputza abandonatzen bukaera txarra guretzat da ez bagerade mudatzen. [tor

Puntziyo eta erromeriyak munduarentzat egiñak bañan ez degu konsideratzen nola geran buru-ariñak errespetua guardatutzera beti egin alegiñak edo bestela guretzat datoz eternidadeko miñak ;bere eskutik, arren, eduki gaitzala Ama Birjiñak!

Eleizarako deboziyoric
ez degu artzen erdiyak
orregatikan eltzen zaizkigu
kastigu izugarriyak
asko onela egoten dira
meza entzuten jarriyak
ausentziyan da arguriyuan
mingañaren pikardiyak
aditu nai ez duenik bada
itxi bitza belarriyak.

Eleizatikan atera eta
junta alkarren ondora
bi deboziyoz baldin badaude
iru murmuraziyora
meza guziyan egondu gera
ezin pasarik denbora
geren anima desanparatu
etsayarentzat mejora
oyek orrela gertatzen dira
guazen konfesiya.

Asko onela ikusten dira
esanaz: ¿konfesatzera?
nalago dute pausua eman
aurrera baño atzera
urtian beingo jornada dute
mundua engañatzera
modu orretan, pekatariya
dijoa konfesatzera
bere anima entregatzen du
fariseoen antzera.

Urtian beingo konfesiya
geienak gogo txarrian
egunez askok ikusten gaitu
guazen illunabarrian
damurik gabe prestatzen dira
konfesorien aurrian
txikiyak esan aundiyak utzi
irutatik bi gordian
beste munduan agertuko da
orrelakuak nor dian.

Konfesatu ta au esateko
kanpora atera artia
munduarekin kunplitu degu
urte beteko pakia
baña orrela ez da serbitzen
Jaunaren borondatia
ordu batetik bestera dator
munduko errematia
pekatuentzat itxia dago
zeruetako atia.

Barrabas dabil gu toriatzen
galtza gorriyak jantziya
desanparatu dezagun ori
artu dezala etsiya
infernurako izan ez dedin
animaren sententziya
konfesio ona egin dezagun
kunplitu penitentziya
obra onakin logra dedilla
zerurako lizentziya.

Pekatarriya sartutzen bada
etsai gaiztuen tartera
ura andikan ateratzeko
¿bitartekorik ote da?
ordu bi daude mundu onetan
konparaziyo batera
oriyek nola pasako diran
ondo kontuak atera
biziyo txarrak engañatzia
animarentzat kalte da.

Batayotikan artu genduan
Jaungoikoaren graziya
kontu ez dedin galdu zerua
lenago irabaziya
guregatikan lajatu zuen
Jesusek bere biziya
ikusten degu nola daguan
gurutzari josiya
bera serbitzen pasa dezagun
eternidade guziya.

Zar eta gazte, pobre ta abe-
maister eta nagusiyak [rats
ez gaitzala, arren, desanpa-
[ratu

Jaungoikoaren graziyak
Animarentzat kaltian datoz
gorputzaren maleziyak
¿zertako dira tratuak eta
munduko irabaziya?
Emen utzita juanak dira
oraindañoko guziyak.

¿Bertsolariyak zertako egiñ
bere burua justua!
bestela pobre bizi naiz bañan
pekatuz aberastua
alde batera utzi dezagun
mundu ontako gustua
edo bestela etorko zaigu
sententzien bat estua
Jesusengana biur gaitezen
ez dago gutzaz aztua.

Animak garbi jarri ditzagun
al bada kristau guziyak
eta irabazi, gogor egiñaz
etsayakiko auziyak
pekatutikan zer datorkigun
ondo gaude ikasiyak
gero damurik ez du izango
munduan ondo biziya
orretarako lagun deigula
Jaungoikuaren graziyak.

BARTOLO TA MARI IÑAZIREN PASADIZUAK
Txirrita

1

Jaungoikuak egun on
dizula, Ma'Iñazi
zer zabilta zu emen
makilla ta guzi?
—ardi kontu, Bartolo
nai banazu ikusi
beste ofiziyorik
ez nuan ikusi.

2

Ez aldezu artu biar
Ma'Iñazi, gizonik?
bizi modu obia
jarriko dizut nik
—ez dadukat dirurik
eta ondasunik
ez det uste, Bartolo
zuk naiko nazunik.

3

Zu egonagatikan
arrote ta pobre
zenbait aberats baño
neretzako obe
atoz, zauden bezela
xentimentorik gabe
ta zu egingo zera
nere gauzen jabe.

4

Ni izanagatikan
etxe pobrekua
badakizu naizela
biyotz noblekua
beste batzuek baño
konduta obekua
zirri bat iñork ere
egin gabekua.

5

Berrogeita biña urte
zaizkigu kunplitu
iya bada garaya
nai bada mugitu
berberealakuan
etzera kupitu
Jainkuak bestek eztu
nik ainbat sufritu.

6

Arreba monja juan zait
;au da desgraziya!
fameliyan dadukat
indar eskasiya
orañ ipintzen dizut
komentientziya
zuria izateko
nik dedan guziya.

7

Iru bei ta ogei ollo
zakurra ta astua
lau katu eta bi auntz
;zer bizi poztua!
morroi bat artuko det
pulamentuzkua
ez dago sayatzeko
paraje gaiztua.

8

Etxia neria det
baditut bi txerri
baita mendiyen ere
berrogei bat ardi
pobria izan arren
azaltzen naiz argi
zor artzekuak kito
kontuetan garbi.

9

Bi aizpa bizi giñan
aita eta ama
bestiak gobernatzan
nik bakarrik lana
ayentzat justu justu
sortzen nuen dana,
irabazi orduko
aurretikan jana.

10

Aste batian illak
aita eta ama
ta aizpa reumak artu
ura gure lana
izeba batek artu
zuen beregana
zerbait biar zanian
beti neregana.

11

Sokorritutzen nuen
onradamentian
negar egiten zuen
begiyak betian
orañ bi illabete
sartu zan lurpian
galanki sufrituta
amar bat urtian.

12

Ez bagera sayatzen
ez dago gauzonik
ez dezu adituko
alperra naizenik
egiñala guziya
egingo dizut nik
nere partetik ezta
galduko gizonik.

13

Bartolo arkitzen zan
estadu motxian
iñor emakumerik
etzaukan etxian
dudan ibilli gabe
denbora luzian
illabete baño len
esposatu zian.

14

Orra pasadizuak
guk adierazi
sayatzen danak eztu
burlarik merezi
orañ egin biagu
lengo penak utzi
alkar istimatuzaz
ondo ondo bizi

¡ JA-JAI !

Bilintx

1

Bein batian Loyolan
erromeriya zan
antxen ikusi nuben
neskatxa bat plazan
txoriya bañon ere
ariñago dantzan
uraxen bai pollita
an pollitik bazan.

2

Esan nin desio
senti nuben gisan
arekin izketa bat
nai nubela izan
erantzun ziran ezik
atsegin ar nezan
adituko zirala
zer nai niyon esan.

EUSKALERRIAN JAYO

Iñaki Gallastegi

1

Euskalerrian jayo
ta euskera gaitzetsi
euskaldunen izenik
ez dute merezi
izkuntzak jakin arren
zazpi edo zortzi
euskaldunak bear du
euskera lenbizi.

3

Arkitu giñanian
Iñor gabe jiran
koloriak gorritu
arazi zizkiran
kontatuko dizutet
guztiya segiran
zer esan niyon eta
zer erantzun ziran.

4

Dama pollita zera
pollita guztiz ai!
bañan alare zaude
oraindik ezkongai
ezkon gaitezen biyok
esan zadazu bai
ni zurekin ezkondu?
ni zurekin? Ja-jai!

2

Euskalduna naizela
gogoratutzian
atsegiña sortzen zait
biotz biotzian
euskaldun bat ikusten
dedan bakoitzian
maitasuna sortzen da
gu bion artian.

MUTIL ZAR BATERI

Pello Zabaleta

1

Bertso berri batzuek
bear ditut jarri
mutil-zar batentzako
zerbait tentagarri
ezkontzeko asmuak
omen ditu sarri
andregayaren billa
dabil erriz erri.

2

Iñor baldin badago
ezkontzeko zale
mutil-zar ori nor dan
egin zazu galde
etzera geldituko
senargayik gabe
eta egingo zera
puska onen jabe.

3

Nobiyo jaun ori da
kosta aldekoa
Debatikan onera
etorritakua
langille ona eta
ezkongai bapua
edozeiñentzako ere
bazera naikua.

4

Ogeita amasei urte
oraindik gaztia
gorputz ederrekua
txit baliencia
suertatzen bazayo
gustoko andria
jayero pasiatzen
ibilliko dia.

5

Jayero pasiatu
eguraldi onian
zineru juango dira
denbora txarrian
andik biyak etxera
iñulabarrian
ondo biziko dira
alkartasunian.

6

Neskatxa bat gustatzen
zaizu Erreterin
benturaz berak ere
naiko du zurekin
azkar obe diyozu
mandatua egiñ
engañatu baño len
besteren batekin.

Lenbizi pentsatzen du
puskak egitia
oya muelle onakin
ta mesanotxia
maya marmolezkua
oso dotoria
beste armariyo bat
espilloz betia.

AITA SEMEAK

Pello Mari Otaño

1

Lagundurikan danoi
gugatik il zanak
seme, azi zaitugu
aitak eta amak
beti zure gidari
izandu geranak
orain gurutze onen
oñean esanak
ondo goguan artu
biaituzu danak.

2

Zu Ameriketara
joatia emendik
Jaunak ala nai badu
zer egingo det nik!
an ez dezu izango
aitik eta amik
baña etzera galduko
noranaira joanik
ez bazaizu aztutzen
gaur emen esanik.

Ezpazayo gertatzen
andrerik artzia
puskak pentsatzen du
irrifan jartzia
orduan cbe dezu
etsiya artzia
eta mutill-zarraren
bandera agertzia

3

Gorde zazu buruan
eta biyotzean
aitak zer esan zizun
onuntz lagun'zean
bitarteko arturik
Jesus gurutzean
Jaungoikua t'ait'amak
batek aztutzean
ez leike ondo izan
denbora luzean

4

Ez nizuke utziko
joaten, egiyetan
gure erlijiyua
ez balitz an bertan
iritxiko baziña
ain urrutiyetan
erri ta eleizarik
ez dan tokiyetan
oroi zaitetz Jainkoaz
leku guzietan

Seme, izan goguan
zere gurasuak
eta uzten dituzun
senide gozuak
jayo ziñan tokiko
mendi ta basuak
euskerazko otoitzak
eta errezuak
erakutsiyak zure
amatxo gaxuak.

Iritxi da ordua
Juan bear dezuna
badakizu ait'amak
emen daukatzuna
ez dezazula aztu
gaur neri entzuna
itz baterako au da
eskatzen zaizuna
izan zaitetz non nai ta
beti euskalduna.

SANTO TOMASEKO FERIYA

Txirrita

1

Abenduaren ogei ta bata
Santo Tomasen eguna
Donostiyako zitudadian
jai zelebratzen deguna
pobre ta aberats jende askori
maiz akordatzen zaiguna
Azpeitayan du beste santu bat
bere antzeko laguna.

2

Egun orretan pentsatzen bada
Donostiyara juatia
kuidado gabe otorri lasai
zabalik dago atia
goizian plaza ikusiko da
gauza ederrez betia
falta duena serbitutzeko
badago borondatia.

3

Ezkonberriyak etorri onuntz
gure adiskire prestuak
zuek etxian noiz ikusiko
aurrak an daude poztuak
—ama, gurezat zer ekarri du?
luzaturikan eskuak
—ara, aizezko pelotak eta
karamelozko txistuak.

4

Bestiak diyo: etorri onuntz
guk baditugu ontziyak
marmidak eta txokolaterak
kafetera ta pasiyak
dozena t'erdi pota zurezko
aita zanak utziyak
zazpigarrena eraman dute
salduko dira guziyak.

Atoz onera, Juan Inazio
zertako zuaz igesi?
nik badakit zu bizi zerala
etxe oneko nagusi
sega ederrak ogeina pezta
nai badituzu erosi
aiba, bost duro, bi arrirekiñ
onen onena berezi.

Len iru duro kastatu ditut
ta orainguak bost dia
berrogei pezta kosta zait aur-
Santo Tomas ikustia [ten
neri dirua gustatuzten zait
gauzaren truka uztia
egin dan konpraz kontentu
ikusia arte, gaztia [nua

Ogei urteko semia det bat
amaseikua bestia
biyen tartian alabatxo bat
ez dago oso tristia
aita ta ama anparatzeko
txarrak izandu ez dia
oyei begira gozatzen gera
ni ta nere emaztia.

Bost duroko bat kastatuzteko
dudan egondu ezera
zuk orañ ere puska ederrak
daramazkitzu etxera
endorenguk maite dituzu
egiñagatik zartzera
istimatuko zaitu semiak
ola portatzen bazera.

San Tomasetan guazentian
teatrua ikustera
ezin pasarik ibiltzen gera
kale batetik bestera
arraltsaldeko festa bukatu
gabian berriz ostera
an jakiten da nolakua dan
lege zarreko euskera.

Juan dan urteko San Toma-
izandu nitzan perira [setan
bi ordu t'erdi pasa nituen
ango festari begira
gauza zaukanak empleatzeko
ipintzen zuen segira
aurten etortzen diranak ere
ortan sayatuko dira.

Donostiarrak ez dira egongo
Santo Tomasez antsiyak
teatru ortan ikusten dira
pareja ondo jantziyak
eyal fiñezko traje ederrak
lujo aundiyan josiya
festa aundiya izango dira
etorri dama guziyak.

Toki orretan bezin kontentuz
ez naiz batetan egondu
baña gabeko funziu ori
akabatzen da berandu
bakoitzak bere andre gayari
etxera ondo lagundu
zer esanikan ezda guretzat
ori egingo bagendu.

GALAI BAT ETORRI ZAIT

Txirrita

1

Galai bat etorri zait
prestuaren gisa
bertso berri batzuek
para albanitza
arrazoyaren bidez
nai duela mintza
sayatuyo nitzala
eman niyon itza.

2

Aita bati bezela
esan dizkit itz bi
oyen despreziyuak
goguan daukazki
kontrariyu pranko
izandu du noski
tontua izan balitz
etzeguen gaizki.

3

Dama gazte eder bat
ain gustagarriya
berez naparra zan da
onuntz etorriya
benta polit batian
serbitzen jarriya
eta Astiarraga
deitzen da erriya.

4

Dizdiz egiten zuen
izar baten gisa
biartu nuen eta
eman zidan itza
esanaz beste danak
alperrik dabilta
zuk dadukazu nere
zarrallaren giltza.

5

Etxian da kanpuan
tabernan ta elizan
bi urtez zaitu zaitut
zu nola zabilta
beste aitzakiyarik
ez dezu deus izan
piska bat mudakorra
gaur askoren gisan.

6

Lenengo erromeriya
Astigarragan zan
beste mutill batekin
bertara jua zan
alkar billatu degu
beriala plazan
beste sobrante ori
an zebillen saltsan.

Bentako tabernatik
lenengo auzua
an eztu mutill batek
jениyo gozua
biyotz gogorrekua
ta eskandalosua
arretzek tira ziyon
neskari basua.

8

Ze pikardi izan zan
nua esatera
autsi ziran basua
ta iru platera
neskatxa erne zegon
makurtu zan bera
gaxua justutikan
eskapatu zera.

9

Ori da izatia
jениyo torpia
mostradorian tira
zeniyon kolpia
arrek deitu baziñu
biar dan tokia
seguru zan luzaro
preso egotia.

10

Beste bat auzokua
sujeto zuzena
ni ill biar nauela
askotan esana
neskatx orren nobiyo
lenago izana
arrua ta koraje
gutxiko gizona.

Bentako iturriyan
illunabar batez
neskatx ori ikusi det
aspaldiko partez
izketan egon giñan
biyak borondatez
ez degu ezer esan
iñorentzat kaltez.

12

Bire baztar batian
an zegon gordia
makilla motz batekiñ
aiñ zan kobardia
buruan jota kendu
nai ziran kordia
neroni ere lotan
ez negon ordia.

13

Itza eman bazizun
orri egin kaso
ez neri kulpa gabe
makillarik jaso
nola izandu geran
lagun eta auzo
barkatzen dizut baño
gaizki dago oso.

14

Beti guri segika
baserri ta kale
beste lagun batzuek
bazituen alde
bi kolpe eman dizkat
ukabillaz dale
andik aurrera etzan
okasiyo zale.

Ni baño larriyago
ezkontzeko bera
zorrotz galdetu ziran
noiz egiño gera?
oraindik lazu ortan
eznua sartzera
nai dezun martxa artu
presaka bazera.

Orra Migel Altunak
aunditsua lertu
ojala izar ori
ez balitz agertu
bada ezpada ez nitzan
aurreregi sartu
oraindik libre dago
nai duenak artu.

BERTSO ZARRAK

Xenpelar

1

Milla zortzireun da iru
rogeita zortziyan
asunto bat sortu da
gure probintziyan
gerra kalte degula
nere iritziyan
Euskal-erriyak gauden
lengo dezentziyan.

2

Orain urte berriyan
sartuak gerade
bañan lengo zarretik
asiyak dirade
lege oyetan gauden
kanbiatu gabe
iñor egiñ ez dediñ
euskaldunen jabe.

3

Liberalak diyote
egoteko umill
lengo lege zarrikan
ez nai dutela ill
gu tontuak bagiña
oyek beti abill
oraindik asuntua
fandanguan dabill

4

Guk pakia nai degu
ez gerrarik emen
zarrak juramentua
eman ziguten len
mudantzak asi dira
egun gutxi barren
anparatu gaitzala
Jaungoikuak arren

Notiziya berriyak
dirade azaidu
kristau fielak ori
egin bear al du?
nai ez bazuten lengo
legerikan galdu
jesuitak zertako
kanpora bialdu?

Legiaren kontrako
makiña bat etsai
jolas txarrak banatzen
kalietan lasai
apaizarikan eztu
iñork ikusi nai
pikardiyen dabilizan
majaderuak bai.

Alkar eziñ ikusi
au mundu argala
uste degu betiko
jauak gerala
alperrik da artzia
indarraren gala
Aingeru Guardakoak
anpara gaitzala.

Kortian jarri bedi
gizon bat umilla
berari entregatu
ezpata ta silla
etsayaren indarra
utzi dezan illa
ori desiatzen det
ala izan dedilla.

Debaldekua dala
aur batayatzia
bai eta iltzen dana
enterratutzia
ez bazaye tokatzen
jornalik artzia
alperrik da orduan
estudiatzia.

Barbero mediko, ta
letrauai galde
iya ote dabilizan
jornalikan gabe
lana egin gogotik
gorputza debalde
alperrik ez da iñor
enpeñatu zale.

Alaba ta Bizkaya
legezko indarrak
Gupuzkuan ez gaude
laguntzalle txarrak
orra iru Probenzi
Kantabriyatarrak
sostenitu ditzagun
lengo Fuero Zarrak.

EUROPAKO GERRARI

Juan eta Pello Zabaleta

Milla bederatzi egun urte
gañera amazapiyan
bertso berriyak jartzera guaz
txit sentimentu aundiyan
ikusten denez alkarrengana
gaude gorroto biziyan
gerrak utzita pakian guazen
Jaungoikoaren graziyan
ai! ori logra albanizake
orain Europa guziyan.

Gure Europa maitagarriya
dago odolez bustita
pena samiañak zabaldurikan
munduan parte guzita
nori etzayo biyotza lertzen
tamaña ontan ikusita
gauz onik ez datorkigula ortik
egon gindezke etsita
bata bestia barka zayogun
gorroto danak utzita.

Etsai gaiztuak parte artuta
dabilzako mediyo
Europa triste ontan isurtzen
da zenbait odol irriyo
zenbat persona gera mun-
[duan
beste ainbeste opiniyo
saltsan sartzia obe degula
askori aditzen zayo
len sobra gerra daukagu ber-
or sartu gabe soziyo [tan

Gerra ori dala mediyo dago
gauza guziya garesti
len erdi'purdi bizi giñanak
gaur nola zenbat fameli
aur txiki asko baldin baditu
ayek mantendu ta jantzi
nola egiñ ezin pensaturikan
jarriya gau ta egun beti
pobre gaxuak azkenerako
probatutzen du ederki.

Baldiñ gerra orrek oraiñ be-
luzaro segitzen badu [zela
pasa diranak deus ez dirala
amaikak esan biar du
lenago amar baliyo zuen
gauza oraiñ ogei kendu
tamaña onetan gu bezelako
pobria nola mantendu?
Alare ontan geradenian
egon gindezke kontentu.

Garai bateko aitona zarrak
bizirik baldin baleude
Europa dana onla ikusita
zer esango ote luteke
ikusirikan bata bestia
iltzen orrenbeste jende
Jainkuak daki onezkergero
zenbat eriyotza triste
pensatzen jarri ezkeru penaz
biyotza urtu leiteke.

Zori gaiztoko gerra europe'au
lenbizi piztu zuana
onezkergero damutu zayo
etzuala egiñ gauza ona
amaren seme ederrik bada
kulparik gabe ill dana
oyen animaz erregutuaz
guazen zeruko Aitana
eskatutzerara arren jartzeko
pakian Europa dana.

Mundu guziya arriturikan
dago begira jarriya
ikusirikan odol isurtze
aundi ta negargarriya
zenbat guraso triste ta semek
ntzi du bere biziya
pozgarriya etzan izango ayen
azken orduko antsiya
gerrak gauza onik ez dakar
artu dezagun etsiya [eta

Guraso zarrak negarrez daude
len zeudenak txit alayak
odolez busti diradelakoz
mendi, zelai ta ibayak
oik poztutzerara saya gaitezen
arrebak eta anayak
erregututzen pasatzen ditut
aste egun eta jayak
arren pakia egin dezala
zeru ta lurren Artzayak.

Iru urte ta lau illabete
pasiak gerra ori asirik
makiñatxo bat ill da gaur
biar zutenak bizirik [egon
Santa Sekulan ezta izandu
onlako odol isurtzerik
penaren penaz indarrarekin
biyotza erdibiturik
pakian billa guazen guziyak
gerra alde batera utzirik.

Jainkuak daki onezkergero
kulpa gabe zenbat milla
gerra orretan aita ta seme
ote dan trintxeran illa
zeruko Aitaren kastigua d'au
sinistuta egon gadilla
barkaziya eska zayogun
jarririk biyotz umilla
odol isurtze izugarriya
lenbailen buka dedilla.

Gora Europa maitagarriya
gora europatar guziyak
pakian arren jarri gaitzala
Jangoikuaren graziyak
gerra gaiztoa dakar mundura
elkar eziñ ikusiyak
alperrik dira emengo auzi
tratu ta irabaziyak
bertan utzita jua biarrak
geradelako guziyak.

FABRIKA BATEKO NESKATXARI

Txintxuak jarriyak

Lenguan zer pasa zan
nai det deklaratu
len ezdakizutenak
orain enteratu
kuadrilla polit bat
nai nuke onratu
argatikan bertsuak
dirade paratu.

Ogeita amar neskatxa
fabrika batian
junta egiñak dira
elkarren artian
errial bana bota
bakoitzak astian
bazkalduko zutela
Lezoko partian.

Egunen batez Josafateko
zelayan Juez justuak
onak beretzat artuko ditu
Luziferrentzat gaiztuak
erruki zaizkit gerra ortan
[kulpa
gabe illtzen diran gaxuak
oitaz erregu arren Jesusi
zabaldurikan besuak
oroipengarri para dituzte
Juan eta Pellok bertsuak.

Ogeita amarretatik
bat bolsara jarri
kinzena artu orduko
dirua eman arri
nabaritu nituen
esanaz alkarri
etzitzayela eguna
nai orduko etorri.

Ilaren seyian zan
oyen komeriya
batzuek txoratu're
egin ziran iya
esanez nola zuten
Lezon bazkariya
pasa biar zutela
zelebrequeriya.

Kontramaistran etxera
ziraden juntatu
esandako ordurako
etzuten faltatu
lendabiziko lana
guziyak kontatu
abiyarako orla
ziraden plantatu.

Soldadu tropan gisa
Lezora joan zian
birian oso triste
ibilli etzian
bazkaldu biar zuten
ostatu etxian
irrintzi eta bulla
sartu omen zian.

Miseririk etzuten
jenerorik gabez
zer nai klasetatikan
aspertuak janez
kafiak artuituzte
kopatik eranez
tripak betiak dira
aditu dedanez.

Bazkaldu eta gero
oyen erretira
batzuek Pasayara
bestiak Errera
jende asko giñaden
oyeri begira
gustatzeko moduan
ibilliyak dira.

Beriala dantzarako
ziran prebenitu
iñola ere plazan
ezin errenditu
badira etziranak
ezertan metitu
kulparik ez duenak
ez beretzat aitu

Mutill batzuek juan
giñan elkarrekin
dantzatzeko ustian
neskatx oriyekin
beriala aitzakiya
bazuten gurekin
etzirala ibilliko
brusadunarekin

Trajedunakin dantzan
nai dute igandian
brusa duena berriz
utzi baztarrian
gu aña pobre ziran
juan dan astian
eztakit noiz ezker
aberastu dian.

Guk genduen okerra
bulla eta kanta
pixka bat toriatu
bazterrera juanta
traje eta releju
gañera gorbata
oriyen desiyuak
orrelako'n bat da.

Biba neskatxa gazte
dantzari nobliak!
juiziyo gabeko
endreadoriak
asko poztutzen gaitu
oyen faboriak
erakutsi dituzte
abillidadiak.

Au da pazientziyan
artu biar dana
asko gustatu zaigu
neskatx oyen lana
gezurra eta saltsa
arrunka ta afana
burla egin geniyela
alkatiangana.

Alkatian ordena
zan astelenian
Konsejura juateko
urrengo egunian
desterratuak giñan
nesken mingañian
bañan emen gabiltza
oriyek añian.

Despeditu nai ditut
ondo esanian
gero ere dibertitu
umore onian
bertsuak ez badaude
bide zuzenian
berriz ere parte eman
nai dezutenian.

PELOTARIYAK

Iraola

EIBARKO TXIKIYA

Onen txestotik ateratzen da
pelota txit zatitua
naiz bera izan txatar motela
edo naiz izan pisua
zenbait plazetan sartu azi du
patrikerako izua
lau modutara ezagututzen
dute guzien maisua

BILLABONAKO MAINGUA

Odol biziko pelotariya
plazaratu zan gazterik
ez da ikusi iñor egiten
ark bezin sake gaiztorik
aurrian jotzen duenak berriz
egin nai ezik boterik
pelota gogor ebakitzeko
ez da azaldu besterik.

MARDURA

Ankaz azkarra buruz abilla plaza ongi du betetzen maneju ona dauka gañera pelota ongi baztertzen kontrariyuak gutxitan diyo nai aña bolia artzen oni partida irabazteko ez ditu lan txarrak jartzen.

ELIZEGI

Erremontian nola elduta biyak ederki dakizki indarra eta beso libria sobra berekiñ daukazki zerbait maliziz jazten danian dūda gaberik da aski onenen kontra jokatu eta irabazteko noski.

BALTXAR

Au da Marduren plaza lagu-aurreko jokalaria [na begi zorrozdun mutill ernia biziro bildurgarriya kontrariyu bere lekuan naiz ondo egon jarriya kontugabetzen bada aguro artuko diyo neurriya.

BRAU TXIKIYA

Errebes eder lasai galaya meritu aundiko juak esnatuko du kontrariyu tentatzen badauka luak ; a zer mutilla billatutzeko txokuak edo txuluak! plaza danetan oparo ditu irabaziyak txaluak.

BERGARARRARA

Indarrez jo ta egiten badu pelotak zorrotz botia beso azpitik tiratutzeko beretzako da obia egokiya ta sasoyekua batere bildur gabia dudarik gabe ez da erozein onlako ditxen jabia.

BRAU ZARRA

Onen mugirak biziyak dira beti partida danetan txantxarik gabe jokatzuten du irabaztera benetan bere bolia fiñakin daki pelota jartzen anketan orrengatik du kontra duena erabillitzen neketan.

PORTAL

Urte bete da geyenaz ere txestoz egiña sarrera nonbait argatik erortzen zaiz-iñoiz pelotak lurrera [ka baña bolia indartsu arrek bultzatzen badu aurrera moda berriko kolejiyuan egiña dauka karrera.

MELTXOR

Mutiko pizkor korajetsua asten danian sakatzen irixko gazte bizi bizia dirudi plazan jokatzten oso da fiña argatik daki azken tantoraño eltzen Meltxor'en faltaz ez da parberialakuan galtzen. [tida

ZARRAREN BENTAJAK

1

Iñork jakin nai badu zartzaren berria oraintxe nua artzen baten neurria ara zer estadutan nagoen jarria tamaña ontaraño nago etorria buruaz larria begiaz gorria metu zat gerria aragiz urria azio guzietan ikusgarria.

ZARRAK

Lizurume ta San Juan izan dira pelotari osuak Joxe Juakin ta Txikibar fiñ eta baliosuak [zarra Potono ona, Bega zimelak jarriko ditu lazuak jokatu eta irabazteko lagundutzero besuak.

GAZTIĀK

Sanperio ta Pasiegua Antonino ta bestiak azaltzen asi dira plazara txit pelotari gaztiak antxen bildutzen dira gala-langilliakiñ nastiak [yak gure oitura zarrak ez baitu merezi galtzen uztia.

2

Paperan jartzen ditut zartu onen seiñak gelditutzeagatik danok jakiñak oso ajatu dira ditudan eskiñak persona gustatzeko ez daude txukiñak illeak alde egiñak bizarrak urdiñak falta oso agiñak ortzak ez berdiñak nigatik libre daude sagar gordiñak.

Nere sentidu onak
daude desegiñak
betiko etziraden
nunbait egiñak
ezurak gogor eta
mamiak biguñak
alkarri ezin pasa
dikiot bi oñak
indar gutxi zañak
egiteko azañak
ez gaude bikañak
ai! oyek tamañak
lanak ematen dizkit
jaiki eziñak.

Buruan pisu daukat
anka ez ariñak
badauzkat alderoak
zer eragiñak
asko nekatutzen nau
ibilli eziñak
bideak ezpaditut
zelai ta berdiñak
pauso utsegiñak
ez dira atsegiñak
bentzutzen nau griñak
descoak fiñak
bañan eztu balio
nere alegiñak.

Eskarmentuak franko
orain ditut artu
ezagueran ortikan
nai badet sartu
galtzen ari naizena
nerau naiz oartu
orra bigarren aldiz
ni ume biurtu
mami danak urtu
azala zimurtu
aizea samurtu
oso naiz bildurtu
gauzak ikusitzeko
gerade zartu.

Naturalezak baja
ta tatxak agertu
bildur naiz ill bearra
ote dan gertu
preziso noiz ta nola
ez nezake neurtu
lan bide egokiak
orain zaizkit sortu
belarriak gortu
ta bista laburtu
bizkarra makurtu
gerriak okertu
ala ere munduan
ez naiz aspertu.

Sentidu ta alderdi
danak zaizkit txartu
bajutzen iñork ere
ni ezin paratu
nere mugimentuak
ez dira azkartu
senarra nai duana
ez nizaz beartu
ez gera edertu
azala zakartu
ezurak gogortu
junturak legortu
deseo nuke baña
ezin bizkortu.

Nere bizi modua
txit da aldrebestu
iñork onelakorik
ikusi eztu
asko farrez daude ta
ni sobra naiz estu
pesadumbreak zaizkit
biotzean piztu
memoria nastu
kontu zarrak aztu
odolak txit oztu
pausoa ere moztu
iya ez dadukagu
zerekin poztu.

Zertan egin bear du
gizonak eronka
abilidaderikan
ezpadaduka
besteren kontra ez naiz
ni desafioka
nere buruarekin
or nabill burruka
bi oñen errenka
;ai! aulak lan dauka
trinki eta tranka
orrek galtzen nauka
preziso bear det i-
rugarren anka.

Eskiña guzietan
artu det bajeza
au da pesadumbrea
eta tristeza
penatikan geyena
indarrikan eza
edozeñek nigana
begiratu beza
sudurra zorortza
iya jo du okotza
barrunbea otza
alibio motza
ez dago txit alegre
nere biotza.

Abiatutzen banaiz
 ara edo onuntza
 preziso bearrean
 nago laguntza
 beste gañerakoan
 nerau ez naiz gauza
 bakarrik fiatzeko
 ez nago kapaza
 au da konfiantza
 edo segurantz
 pauso edo balantza
 ordiaren antza
 gerogo ta txarrago
 det esperantza.

Txit desfiguratu da
 nere semejanza
 ez nago ezagutzen
 ere erraza
 urtetikan urtera
 bajatzen mudanza
 tenblekea dadukat
 au da aitzen gauza
 badadukat traza
 barrunbeko poza
 soñu gabe danza
 au alegeranza
 nere gorputzak badu
 bost alabanza

Zarraren enpatxua
 sendatutzen gaiz da
 nik ondo probatzen det
 orretan jaiz ta
 aulari matxura asko
 azaldutzen zaizka
 ezin erremeditu
 ajearen kasta
 au genduke festa
 zutitu ere ozta
 indarriyan ezta
 mugitzea kosta
 onetara ezker
 gizona moz da.

Tatzak esplikatutzen
 ezin naiz isildu
 erretiroan nola
 naizen umildu
 ura errekan bezela
 beraño amildu
 betiko egon lekura
 ia gera bildu
 itxurak azaldu
 txit gera makaldu
 ontaraño auldu
 korputz dana galdu
 obego baten truke
 ni ezin saidu.

Eskarmentu askozaz
 nai asko jakindu
 bestela zartu eta
 ezin egindu
 sasoi onak nigandik
 txit iges egin du
 ai! nagusi on batek
 artuko banindu
 kardabak arindu
 lanik ez agindu
 sabela berdindu
 soñean txukindu
 konpunduko giñake
 oyek bagindu.

Aterako banaiz ni
 batere arrazoiz
 oyeraz etzitea
 komeni zait goiz
 jeiki berriz neronek
 asmatuko det noiz
 alimentua fiña
 beat zenbait sasoz
 tragotxoak iñoiz
 flakatutzen banaiz
 jan otorduan maiz
 gorputzak eztu gaiz
 zerbait orrelaxe ni
 konpunduko naiz.

Egunikan onenak
 naski jua zaizkigu
 sasoyan ezin egon
 beti gazte gu
 Jaungoikoak bizirik
 utzitzen badigu
 ez dago dudarikan
 zarza datorkigu
 seguru dakigu
 faltatzen ez digu
 andik datorkigu
 ainbeste kastigu
 orra esperenziak
 obren testigu.

NERE EMAZTEAREKIN

1

Bertso berriyak jartzera nua nerekiñ andriarentzat emazte aula idukitu det txit emakume abiltzat ta orain berriz engañatu ta galdu nauela deritzat kana bat neri jarri dit baño beste bat dauka beretzat.

2

Labore gutxi daukat etxian eta auzuan jakiya nekazaritzat bizi naiz baña estomagotik flakiya kontrabandorik izan ezker txamarran badet tokiya nik dadukadan bizi modua oso da penagarriya.

3

Andria daukat mediku eta baita ere botikariyo nere gaitzari beti dieta agindu izandu diyo lepua metu ijara seko atzetik galtzak jariyo negu gogorrik egiten badu laster mundutik adiyo.

4

Len bajatua bildurrez nago zeren galtzen duan utsik endemas ere egiten badu eiurrik edo izotzik goizian berak galdu biar nau naiz ez izan beste gatzik lanikan asko izan biar det aditzen kukuen otzik.

5

Gosaldutzeko ez det izaten txanpon biren baliyua jeneralian porru salda ta sudurretik oliyua ogi sopa bi, talo puska bat goizeko alibiyua lanera bizkor biraldutzen du agure enbaliyua.

6

Oliyo gabe baba jartzen dit eguardirako kuziña artua gutxi urdaya falta eta auzuan zeziña mokadurikan gustokorik ez eta txarrik jan ezina andria ala ipiñi balitz ill biar zuen antziña.

7

Arratzerako egiten zaizkit afaldutzeko goguak deseo utsez artutzen ditut sopa ona ta traguak dijiritzeko indarra gutxi daduka estomaguak ori esanda arin uzten nau mantendu nazala luak.

8

Belarren urak ematen dizkit libratutzeko kañuak dieta orri beti segitu gauetan iñoiz bañuak ala sendatzen dirala diyo odol galduen dañuak engañatzeko egiten dizkit amoriyozko siñuak.

9

Atsuak beti enkargatzen nau tabernan ez sartutzeko ardorik eta aguardentarik sekulan ez probatzeko benenuaren gisa detala edaten badet kentzeko bildur aundiya emana nauka kuidadoz ibillitzeko.

13

Arrautz freskuak arrai go-urdaya ta txorisuak [zuak oyen gañera gustatzen zaizka erari baliosuak esponja eran urarekin on eri dauden gaxuak dietarekin ni bialdu ta billatzen zerbait atsuak.

10

Eta gañera enkargatzen nau goizetan goiz jaikitzeo odolak nagi daduzkadala eta ayek korritzeko geldi egona kalte dedala lanian izerditzeko erremediyo oyek daduzka gizona saniatzeko.

11

Andria bera gaitz bera dabill aiziak du persegitzen seme bat izan zuan ezker ala dizkiyot aditzen apenas duen nik bezelako dietarekin segitzen enfermedade bana daukagu alaxen zait iruditzen.

12

Aguardinta gustatzen zayo aiziak asentatzeko txokolatia berriz gañian barrunbia tenplatzeo ogi ta ardu eta aragi sabela kontentatzeko estomagua bero darabill ajiak menderatzeko.

Atsuak ongi kuratutzen du
estomaguko aizia
argatik dauka gilbor galanta
gizonak lepo luzia
orrek gauz onez sabela bete
neretzat beti gosia
aspalditxoko denbora det nik
modu onetan pasia.

BERE AITARI ERIOTZA EMANDAKO SEMEAREN BERTSO ZARRAK

1

Jose Tejeria da
au nere graziya
Gipuzkoako Ayan
jayo ta aziya
aita tiroz ill nuen
orra desgraziya
esprikatzera nua
asunto guziya.

2

Deabruak animua
eman biyotzera
tiroz atrebitu naiz
nere aita iltzera
Donostira joan gero
zerbait ekartzera
egindako okerra
disimulatzer.

Amabosgarren bertsuan orra
nola nabillen jakiña
pentsa zazute nolakua dan
atso txarraren kuziña
zurrua franko berak egin da
neri sufritu eziña
orrelakorik etzan pasako
formala izan baziña.

3

Gizonak altxa zuten
aita bizirikan
jay! semiak galdu nau
berak esanikan
gurasoak etzuen
esan gezurrikan
gorputza ilda anima
joan zan mundutikan.

4

Paperian jarriya
alde aurretikan
aitari zenbat eman
señalaturikan
eske ari zan beti
aldamenetikan
gure enredo danak
diruagatikan.

Aitak eskatzen ziran
legez eta bidez
egiten niona da
agindu ta eman ez
buru dana betia
pentsamentu txarrez
tirua eman niyon
diruaren orde.

6

Soldadu armadunak
lotu kurioso
baita eraman ere
Azpeitira preso
deklarazio txarra
egiña nik oso
libratutzeko biar
gezurra preziso.

7

Aurrena egon nitzan
uko fuertian
salatzallea pranko
bazan bitartian
gero aitortu nuan
egunen batian
gezur guztiyak ziran
neretzat kaltian.

8

Azpeitiko erritikan
Donosti aldera
Gipuzkoako buru
dan tribunalera
akusatua nitzan
Judasen legera
gezurrak baliyo ez
neretzat galera.

Gaizki egin nuela
ondo damutzen zat
au eskarmenturako
beste guztiyentzat
munduan ezta izan
oraindikan beintzat
ume bat txarragorik
gurasoarentzat.

10

Donostiyan nuan nik
artu albistia
etzan posible neri
bizirik uztia
ura nere orduko
lastima tristia
etzan alegratuko
nere emaztia.

11

Donostiko erritikan
Azpeitira ekarri
bost guardi armatukin
kotxian etorri
kartzelan sartu eta
an negoen larri
sententziya tristia
zuten irakurri.

12

Zuzen ta garbi egin
dute justiziya
badakit nuela nik
ondo mereziya
ilbeltzan amaseyan
nere sententziya
goizeko zortziretan
kentzeko biyiya.

Gaiztua izan banaiz
orra sujetatu
sententzi orrek ziran
biotza urratu
aita Aizpururekin
ondo konfesatu
egindako okerrak
danak akusatu.

Pauso bat eziñ eman
nuan ezergatik
bi lagun banituen
beso banetatik
urkamendira juan
giñan kartzelatik
borrerua begira
zegoen atzekik.

**DONOSTIAN 1935 ILBELTZAREN 20-AN EGIN ZAN
BERTSOLARIEN TXAPELKETAN TXIRRITA-K KANTATU
ZUEN BERTSO BAT. ETZUEN TXAPELIK ARTU**

Larogei urte gaiñean ditu
nago anketako miñez
Donostiara etorria naiz
erren aundia egiñez
bi bastorirekin txit larri nabil
pausorik eman eziñez
euskera ia aztu zait eta
erderarikan jakiñ ez
maisur batekin eskolan laster
asi bear det latiñez.

Urkamendiyan nitzan
eserita jarri
nere barrena zegon
estu eta larri
biziya eman biar
oso lotsagarri
beste guztiyentzako
eskarmentagarri.

Barkaziyua nuan
azkena eskatu
zergatik egin nuen
lenago pekatu
orregatik bear det
orain nik urkatu
Jaungoikoari arren
nitzaz erregutu.

AURKIBIDEA

Gernikako arbola	3
Nere senarrarekin	4
Orain bi milla urte inguru	6
Izazu nitzaz kupira	8
Kontxesirentzat	10
Ume eder bat	11
Ezkongayetan	12
Agur nere biotzeko	13
Pello Joxepe	13
Zaldi baten bizitza	15
Senarrak emaztiari	16
Mutil koxkor bat	18
Iru damatxo	19
Markesaren alaba	19
Mutil zarraren despeida	22
Arduaren azañak	24
Potajiarenak	27
Munduaren asierako bertsoak	28
Azken juiziyoko eguna	30
Jesukristoren pasiua	32
Santa Agedaren bertsoak	35
Santa Agedaren koplak	37
Otxandioko astotxo bati	39
Bizkaiko txerriyaren bertsuak	42
Valentin Berriochoa, Elorriyo-ko seme ta Tonkin-go Obispo jaunaren bizitza	44
Bere lengusiña bateri, aren ezkontzan	48
Betroi bati	49
Neska zar bat tentatzen	52

Domingo Kanpaña	54
Iriyarena	54
Iya guriak egin du	56
Erari maitagarriya	57
Nere andre onekin	58
Nagusia eta maisterra	61
Aizak a motell mañontzi	63
Ijituarenak	63
Konfesiyuaren gañian	65
Bartolo ta Mari Inaziren pasadizuak	68
¡Ja-jai!	70
Euskalerrian jayo	70
Mutil zar bateri	71
Aita semeak	72
Santo Tomaseko feriya	73
Galai bat etorri zait	75
Bertso zarrak	77
Europako gerrari	79
Fabrika bateko neskatxari	81
Pelotariyak	83
Zarraren bentajak	85
Nere emaztearekin	90
Bere aitari eriotza emandako semearen bertso zarrak	92
Donostian 1935 ilbeltzaren 20-an egin zan bertsolarien txapelketan Txirrita-k	94



ERRATU BATZUEK

P.	BERTSOA	DIO	BEAR LUKE ESAN
33	6	Juan Soberanua	Jaun Soberanua
33	7	Pilatos jarririkan	Pilatos jarririk zan
48	4	poz pozki gaude	poz pozik gaude



Gai
orra
sent
biot
aita
ond
egir
dan

Pat
nua
bi
bes
urk
giñ
bor
zeg

BE

